

joerak 11 tendencias

Euskadiko gazteen
joeren koadernoak

Cuadernos de tendencias
de la juventud vasca

Euskadiko gazteak eta sare sozialak

Euskadi, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

joerak 11 tendencias

Euskadiko gazteen
joeren koadernoak

Cuadernos de tendencias
de la juventud vasca

Euskadiko gazteak eta sare sozialak

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2019

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia:

1.a, 2019ko urria

Ale-kopurua:

70 ale



Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Internet:

www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Egiletza:

Gazteen Euskal Behatokia

Ikerketa taldea:

Miren Bilbao Gaztañaga, Oskar Longo Imatz eta Nieves Corcuera Bilbao

Itzulpena:

IZO (Servicio Oficial de Traducción)

Bildumaren diseinua:

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Komunikazioaren eta Kabinetearen Zuzendaritza

Maketazioa:

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Komunikazioaren eta Kabinetearen Zuzendaritza

Inpresioa:

Eusko Jaurlaritzako Inprenta eta Errepografia Zerbitzua

ISBN:

978-84-457-3471-1

L.G.:

VI 724-2019

AURKEZPENA	7
SARRERA	9
METODOLOGIA	11
1. SARE SOZIALEN ERABILERA	13
1.1. Gazteek erabiltzen duten sare sozialen kopurua	13
1.2. Zenbait sare sozialen erabilera-maiztasuna	14
1.3. Sare sozial gogokoena	17
1.4. Hizkuntza erabiliena sare sozialetan	20
1.5. Erabilera, gurasoenarekin konparatuta	21
1.6. Sare bidea ordainpeko Interneteko edukietara	21
1.7. Internet eta sare sozialez norberak egiten duen erabileraren pertzepzioa	22
2. INTERNETEN ETA SARE SOZIALETAN ARITZEN DIREN JARDUERAK	27
2.1. Zenbait jarduera motatan aritzeko maiztasuna	27
2.2. Youtuber, gamer edota influencerren jarraipena	35
2.3. Blog pertsonalak izatea	36
2.4. Argitaratutako edukien balorazioaren kontsulta	36
2.5. Ziberaktibismoa	38
3. PRIBATUTASUN- ETA SEGURTASUN-NEURRIAK SARE SOZIALETAN	41
3.1. Pribatutasuna bermatzeko neurriak hartzea	41
3.2. Pasahitzak ondo gorderek babestea	43
3.3. Argazki eta bideoak argitaratzeko baimena eskatzea	44
3.4. Adiskide izateko eskaeren onarpena murriztea	46
3.5. Sare sozialak zuzen erabiltzeko irizpideen azalpenak gurasoengandik jasotzea	48
3.6. Sare sozialak zuzen erabiltzeko irizpideen azalpenak gurasoei ematea	49
4. EGOERA UMILIAGARRIAK EDO JAZARPENEZKOAK SARE SOZIALETAN	53
4.1. WhatsApp taldeetatik baztertea	53
4.2. Nortasun-ordezpena	54
4.3. Baimenik gabe argazki edo bideo iraingarriak zabaltzea	56
4.4. Jazarpenaren bizipena	57
4.5. Sare sozialetatik irtetea edo/eta sare sozialetan blokeatzea	59
4.6. Sare sozialetan irain edo/eta umiliazioen lekuko izatea	61

5. ONDORIOAK.....	65
BIBLIOGRAFIA	69
GRAFIKOEN ETA TAULEN AURKIBIDEA	70
I. ERANSKINA. Emaiza-taulak sexuaren, adin taldearen eta lurralde historikoaren arabera	74
II. ERANSKINA. Erabilitako galdetegia.	86

Aurkezpena

‘Euskal gazteriaren joeren koadernoak’ bildumen ‘Euskadiko gazteria eta sare sozialak’ azterlana egin du Gazteen Euskal Behatokiak, 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean 1.512 inkesta egin ondoren; azterlanak lehen aldiz eskaintzen du mota horretako analisi kualitatiboa. Emaizak benetan interesgarriak dira.

Eusko Jaurlaritzan kontziente gara belaunaldi berrientzat Internetaren hedapenak eta sare sozialak heldu izanak ekarri duten inpaktua. Horregatik dugu interesa jakiteko zein den gazte harremana egoera eta tresna teknologiko berri horiekin.

Gaur, 2019an, gure gizartearen zati handi batek, batez ere gure gazteei dagokienez, sare sozialen bidez mantentzen ditu harremanak. Zenbait gailu baliatzen dituzte horretarako, baina telefono mugikor adimendunak, smartphoneak, du pisu gehien. Poltsikoan eta klik bakarrean hainbeste aukera izatea aberasgarria da, baina kontziente izan behar dugu, halaber, horrek nolako arriskuak eta erronkak dakartzan.

Azterlan horrek erakusten du sare sozialak gure gizarteak harremanetan jarduteko moduaren zati bat direla; izan ere, egunero bizi dira haiekin. Esan liteke pertsona horietako asko komunikazio-euskarri horiekin hazi direla: ez dute Internetik gabeko eta telefono mugikorretan erabiltzeko sareetara edo bat-bateko mezularitzako aplikazioetara sarrerarik gabeko mundua ulertzen.

Teknologia berriak aliatuak dira eta eguneroko ekintza askori ematen diete bide. Aukerak ugari dira, eta, sarritan, aberasgarriak. Euskadiko Gazteriak sare sozialak erabiltzen ditu harremanetan jarduteko, beren eguneroko ekintzak hurbilekoei erakusteko, elkar ezagutzeko, lotura pertsonal berriak bilatzeko eta lana aurkitzeko.

Aukera ugari daude. Baina, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu naizen aldetik, gogorarazi behar dut, halaber, sare horiek gaizki erabiltzeak disgustuak eta arazoak ekar diezazkigukeela. Haietan agertzen diren pertsonen baimenik gabe zabaltzen diren bideoak eta irudiak amesgaizto bilakatu ahal izateko moduaren benetako adibide baino ez dira.

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzan izurik eragiten ez duen ereduaren aldeko apustua egiten dugu; eredu hori sare sozialen erabilera egokian oinarritzen da, eta hori lortzeko hura ezagutu beharra dago. Horretarako, Europako erakundeekin dihardugu lanean, gure haur eta nerabeak prestatzeko, batez ere, aplikazio horiek dakartzkiguten ahalmenak eta arriskuak ezagutzeko. Safer Internet Dayren urteko ospakizuna eta gazteenek haien eragina aztertzeko abian den lehiaketa bat egitea horren adibide dira.

Lehiaketa horrez gainera, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak hainbat urte daramatza Interneten gazteenen babesa sustatzeko ekimenak bultzatzen: egON LINE izeneko gida pedagogikoa jarri dute abian, DBHko 1. eta 2. mailetakoko geletan teknologia berrien hezkuntza lantzeko, eta gida argitaratu dute: “Internet eta Teknologia Berriak. Hitz egingo dugu familiarean?”. Gida horretan, oinarritzko urratsak ematen zaizkie gurasoei, seme-alabak teknologia berrien erabilera arduratsuan eta seguruan hezteko orduan kontuan hartu beharreko alderdi batzuen inguruan.

Digitalizazioak dakartzan aukera berriak aprobetxatu behar ditugu, bai eta teknologia berriak ere, arriskuak prebenitzeko beharrezko prestakuntza aintzat hartuta.

Beatriz Artolazabal
Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua

Sarrera

Gazteen Euskal Behatokiaren zereginen artean gazteen egungo bizitzaren zenbait alderdiri buruzko informazio eguneratua eskuratzea dagoela kontuan harturik (hala nola ikasketak, lana, emantzipazioa, aisialdia, balioak, etab.), ezin diogu muzin egin gazteen bizitzan hain zabaldua dauden eta hain esanguratsuak diren sare sozialen erabilera aztertzeari.

Sare sozialen erabileraz ari garela, zenbait alderdi jorratu nahi izan ditugu, esaterako: zein diren sare erabilienak, zein maiztasunarekin erabiltzen dituzten, zertarako, zer-nolako gaitasunak dituzten sareek gizarte-partaidetzarako, bai, halaber, zer-nolako arriskuak (jazarpena, identitate-ordezpena...) eta zer-nolako pribatutasun- edo segurtasun-neurriak hartzen dituzten gazteek egoera horiek saihesteko. Horrez gain, gazteek sare sozialez eta Internetez egiten duten erabilera orokorrari buruz duten pertzepzioa ere landu da.

Auzi aipatu berriak neurtzeko, telefono bidezko inkesta bat egin diogu Euskadiko gazteen lagin adierazgarri bati (1512 gazte guztira); gazte horiek era anonimoan eta beren borondatez erantzun dituzte egin zaizkien galderak. Galdetegia diseinatzeko, sare sozialen alorreko bi adituren laguntza izan dugu: Lorena Fernández eta Naiara Pérez de Villarreal, zeinek aintzat hartu beharreko alderdi esanguratsuak azpimarratu baitituzte.

Hauxe da Gazteen Euskal Behatokiak berariaz sare sozialei buruz egiten duen lehen azterlan kuantitatiboa; horrenbestez, ez dugu jokamoldeen bilakaeraren berri eman diezaguketen aurretiazko daturik, baina aurrerago egin daitezkeen beste ikerlan batzuetarako oinarria izan daiteke hauxe.

Inkestak zenbakizko ikuspegia emango digu, datuetan zentratua, eta horrek aukera emango digu jakiteko zenbat gaztek erabiltzen duten sare sozial jakin bat edo beste, zenbatek garatzen duten jarduera jakin bat, zenbatek agertzen duten nolabaiteko jokabidea, etab. Baina ikerlan kualitatibo bat egin beharko litzateke, honen osagarri, jakiteko zergatik nahiago duten sare jakin bat, zergatik garatzen dituzten jarduera zehatz horiek, edo zergatik erakusten dituzten jokabide horiek.

Edonola ere, jarraian aurkezten ditugun datuek Interneten eta sare sozialetan Euskadiko gazteek dituzten lehenespenak, erabilerak eta jokabideak pixka bat hobeto ezagutzeko balioko dutela espero dugu.

Sarrera honen eta erabilitako metodologiaren azalpenaz gain, ikerlana lau atal nagusitan banatzen da. Lehen atala sare sozialen erabileran zentratzen da: zein sare erabiltzen diren gehien eta zein maiztasunarekin, zein sare duten gogokoen gazteek, zein den komunikazio-hizkuntza nagusia sare sozialetan eta zer-nolako pertzepzioa duten norberak Internetez egiten duen erabilerari buruz. Bigarren atalean Interneten edo sare sozialetan garatzen dituzten jarduerak jorratzen dira. Hirugarren atalak datu pertsonalen babesa eta norberaren edukietara sarbide mugatua bermatzeko pribatutasun- eta segurtasun-neurriei heltzen die, bai eta arlo horretan gurasoengandik jaso dezaketen aholkuei ere. Laugarren atalak sare sozialetako jazarpenaren alorra jorratzen du, zeinaren inguruan artikulu ugari idatzi diren, eta oraingoan kuantifikatzen saiatuko garen. Azkenik, azterlanaren emaitza adierazgarrien laburpen bat osatu dugu.

Metodologia

Azterlan honetan erabilitako metodologia kuantitatiboa izan da, eta, horretarako, elkarrizketa indibidualak egin dira, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historiko bakoitzeko 15-29 urteko gazteen lagin adierazgarri bati. 1512 inkesta egin dira guztira: 408 Araban, 600 Bizkaian eta 504 Gipuzkoan.

Elkarrizketak telefonoz egin dira, eta erantzun egituratu eta itxiak erabili dira galdera gehienetan. Beste galdera batzuetan, ordea, parte-hartzaileen erantzun ireki eta espontaneoak eskatu dira. Elkarrizketak euskaraz edo gaztelaniaz egin dira, inkestari erantzun dioten gazteek eskatutako hizkuntzaren arabera.

Inkestari erantzuteko pertsonen hautapen-prozedura fase anitzeko laginketarekin eta laginketa geruzatuarekin egin da. Lurralde historiko edo probintzia bakoitzeko ibilbide kopurua zehaztu da lehenik: 34 Araban, 50 Bizkaian eta 42 Gipuzkoan. Guztira 126 ibilbide izan dira, eta bakoitzean 12 elkarrizketa egin dira, 6 gizonezkoei eta 6 emakumeei. Lurralde bakoitzerako ezarritako ibilbide-kopurua ezarri ondoren, gazteen eskualde- eta udalerri-banaketari begiratu zaio, inkestak non egin erabakitzeko. Eskualde guztiak ordezkaturik daudela bermatu da, eta udalerriak tamainaren arabera sailkatu dira, biztanle-kopuruari erreparatuta (10.000 biztanletik beherako udalerriak, 10.000-120.000 biztanle-bitarteko udalerriak, eta hiriburuak).

Zehazki, hau izan da Arabako 34 ibilbideen banaketa: 26 ibilbide Gasteizen, hiriko auzoetan barrena; 3 ibilbide 10.000 biztanletik goragoko udalerrietan (Laudio eta Amurrio, Kantauri Arabarra eskualdekoak); eta 5 ibilbide 10.000 biztanletik beherako udalerrietan, eskualde bereko zenbait udalerriren artean: Berantevilla, Gaubea eta Lantaron, Arabako Bailarak eskualdean; Asparrena eta Iruña Oka, Arabako Lautadan; Arraia-Maeztu, Harana eta Bernedo, Arabako Mendialdean; Villabuena eta Bastida, Arabako Errioxan; eta, azkenik, Aramaio eta Urkabustaiz, Gorbeialdean.

Hau izan da Bizkaiko 50 ibilbideen banaketa: 15 ibilbide Bilbon, gutxienez bat distritu bakoitzeko; 26 ibilbide 10.000 biztanletik gorako udalerrietan (Barakaldo, Getxo, Portugalete, Santurtzi, –ibilbide bat baino gehiago udalerri bakoitzeko– eta Arrigorriaga, Basauri, Etxebarri, Galdakao, Leioa, Trapagaran, Sestao, Erandio, Amorebieta-Etxano, Durango, Ermua, Bermeo, Gernika-Lumo, Mungia, Sopela –ibilbide bakarra udalerri bakoitzeko–) eta 9 ibilbide 10.000 biztanletik beherako udalerrietan, batzuetan eskualde bereko zenbait udalerri batuta (Dima eta Ugao-Miraballes, Arratia-Nerbioi eskualdean; Ortuella, Larrabetzu, Alonsotegi, Zamudio, Loiu eta Derio, Bilbo Handian; Berriz eta Iurreta, Durangaldean; Gueñes, Enkarterrietan; Lekeitio, Markina-Ondarroa eskualdean; eta Plentzia eta Urduliz, Plentzia-Mungia eskualdean).

Azkenik, honela banatu dira Gipuzkoako 42 ibilbideak: 11 ibilbide Donostian; 22 ibilbide 10.000 biztanletik gorako udalerrietan (Irun, Errenteria eta Arrasate –ibilbide bat baino gehiago udalerri bakoitzeko– eta Hondarribia, Eibar, Elgoibar, Oñati, Bergara, Andoain, Hernani, Oiartzun, Pasaia, Lasarte-Oria, Beasain, Tolosa, Azpeitia, Azkoitia eta Zarautz –ibilbide bakarra udalerri bakoitzeko–); eta, azkenik, 9 ibilbide 10.000 biztanletik beherako udalerrietan, eta, batzuetan, tamaina eta eskualde bereko zenbait udalerriara joan behar izan da ibilbideak osatzeko. Hauek dira udalerri horiek: Mutriku eta Soraluze, Debabarrenean; Antzuola eta Eskoriatza,

Debagoienean; Urnieta, Donostialdean; Zaldibia, Lazkao, Zumarraga, Segura eta Urretxu, Goierri; Villabona, Tolosaldean; eta Zestoa, Aia eta Aizarnazabal, Urola Kostan.

Telefonoz deitu beharreko helbideak hautatzeko telefono-aurkibideak baliatu dira, eta elkarrizketatuko ziren gazteen behin betiko hautaketa sexuaren eta adinaren arabera kuoten bidez baldintzatu da; era berean, langabezian dauden pertsonen buruz muga zehatzak ere ezarri dira ibilbide bakoitzeko. Gainera, emantzipatuta dauden eta atzerrian jaio diren gutxiengoko kopuruak ezarri dira lurralde historiko bakoitzerako.

Inkestatuko zen pertsona aukeratu ostean, jakinarazi zaio inkesta Gazteen Euskal Behatokiak egiten dela, eta elkarrizketa grabatu egingo dela, inkestatzaileen lanaren kalitatea kontrolatu ahal izateko. Horrez gain, inkesta euskaraz edo gaztelaniaz egiteko aukera eskaini da, inkestatuaren nahiaren arabera. Inkestatu beharreko pertsonak 15 urte zituen kasuetan, aitaren, amaren edo legezko tutorearen baimena eskatu da.

Elkarrizketak amaitu ostean, telefono bidezko kontrola egin zaio inkesten % 40ri, gerta zitezkeen akatsak edo hutsak hautemateko. Kontrol horretan erabilitako galdetegiak ere Gazteen Euskal Behatokiak egin ditu, garrantzitsuenen jotako irizpideen arabera. Kontrolaren ostean, bi elkarrizketa baliogabetu dira, pertsona inkestatuak ez zirelako zegozkien udalerrietan bizi. Inkesta horien ordezkioak egin izan dira zegozkien udalerrietako pertsonen, betiere ezarritako sexu eta adinaren kuotak aintzat hartuta.

Horrez gain, galdetegiko bi galdera baliogabetu dira, ulermen-arazoak hauteman direlako inkestatuen artean, nahiz eta aurretetan halako arazorik igarri ez. Izan ere, WhatsApp sare sozialari buruz galdetean (galdetegiko 07.G _ 7 galdera), inkestatuetako batzuek nahasi egin dute izen hori WhatsApp aplikazioarenarekin, eta eduki sexista duten mezuengatik galdetean (galdetegiko 20.G galdera), batzuetan eduki sexual gisa ulertu izan da eta beste batzuetan eduki matxista gisa. Galdera biak galdetegi erantsian agertzen dira, baina emaitzak ez dira islatu, baliogabeak direlako.

Landa-lan hau 2018ko azaroaren 7tik abenduaren 11ra bitartean egin izan da (tartean, aurretik egiteko eta kalitate-kontrolaren ondoren bertan behera utzitako inkestak errepikatzeko beharreko egunak).

Inkesta guztiak balioztatu ondoren, datu-base batean grabatu dira, horien estatistika-analisia egiteko SPSS pakete informatikoaren bidez. Gerora, planteatutako galderetako emandako erantzun bakoitzaren ehunekoak kalkulatu dira, bai eta kolektiboen arteko aldeak ere, eta alde horiek adierazgarriak ziren egiaztatzeko proba estatistikoak egin dira. Emaitzak aurkezteko, haztatu eta milakotara bihurtu dira, gazteek Euskadiko lurralde historikoetan eta eskualdeetan duten banaketaren arabera, eta aztertutako adin taldeetan duten banaketa errealearen arabera, eta horretarako Eustatek, Euskal Estatistika Erakundeak, argitaratzen dituen biztanleria-datu ofizialak baliatu dira.

Lagin-errorea, lagin erabat aleatorioa izateari legokiokeena, $\pm$ % 2,5ekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen artean, konfiantza-maila % 95,5ekoa eta $p=q=0,5$ izanik.

Lagin orokorrean, kolektibo jakin bateko banakoak aukeratzean, handitu egiten da hasierako lagin-errorea. Horregatik, aztertutako gaiari egindako hurbilketa gisa ulertu behar dira zenbait datu, eta ez magnitude zehatz gisa. Horregatik bereizitako kolektibo guztiei egin zaizkien inkesten kopuruak (n) zehazten dituzte taulek.

Gazteen Euskal Behatokiak du ikerketaren diseinuaren, emaitzen azterketaren eta txostenaren idazketa-lanaren gaineko erantzukizun osoa.

Landa-lana *Ikertalde Grupo Consultor* enpresak egin du, Gazteen Euskal Behatokiak berariaz eman dizkion jarraibideak betez.

1.


SARE SOZIALEN ERABILERA

Lehen atal honetan gazteek sare sozialez egiten duten erabilera aztertuko dugu. Hasteko, ikertu dugu zenbat sare sozial erabiltzen dituzten, zenbateko maiztasunez erabiltzen duten sareetako bakoitza, zein sare duten gogokoen eta zein den sare sozialetan gehien darabilten hizkuntza. Gero, erabilera horri buruzko balorazio subjektiboak aztertu ditugu, bai gurasoen erabilerarekin konparatuta, baita sare sozialen erabileraren inguruan gerta daitezkeen zenbait egoeraren gaineko bizipen pertsonalaren inguruan ere.

1.1. Gazteek erabiltzen duten sare sozialen kopurua

Euskadiko gazte guztiek dute kontu edo profilen bat sare sozialen edo berehalako mezularitzako aplikazioen batean. Are gehiago, soilik % 5,2k dio kontu edo profila duela sare sozial edo berehalako mezularitzako aplikazio bakarrean; kontua 3 edo 4 sare sozialetan izatea da ohikoena (% 51,5).

1.1.grafikoa. Gazteriaren banaketa, kontu edo profila duten sare sozialen kopuruaren arabera (%)



Gazteek kontua edo profila duten sare sozialen kopuruaren batezbestekoari buruz ez da alderik igartzen sexuaren arabera. Adinaren arabera ere ez dira handiak: 15 eta 19 urte bitartekoek 4,0 sare erabiltzen

dituzte batez beste, 20-24 adin-tartekoaren batezbestekoa 3,8koa da, eta 25-29 adin tartekoena 3,5koa. Alde horien azalpen gisa, adinean gora egin ahala murriztu egiten da hiru saretan baino gehiagotan kontua duten gazteen ehunekoa: % 58,2koa da 15-19 adin-tartean, % 54,4koa murrizten da 20 eta 24 urte bitartekoaren artean, eta % 43,8ra inoiz jaisten 25-29 adin-tartean.

Konektatzeko maiztasuna gorabehera, hauek dira gazteek gehien erabiltzen dituzten sare sozialak: bideoak konpartitzeko Youtube webgunea (gazteen % 99,2 konektatzen da inoiz Youtubera) eta telefono mugikorretarako berehalako mezularitzako aplikazioak, esaterako WhatsApp, Telegram edo Line (gazteen % 99,1ek baliatzen ditu). Gehienek erabiltzen dituzte halaber Instagram, zeregin nagusi irudiak eta bideoak partekatzea duen sare soziala (% 81,1), eta Facebook, erabiltzaileei elkarrekin harremanetan jartzeko eta edukiak partekatzeo aukera ematen dien sare soziala (% 58,5).

Gazteen erdia baino gutxiago konektatzen da sare hauetara: enplegua bilatzeko asmoz enpresa eta profesionalei zuzenduriko LinkedIn, Infojobs, Indeed eta beste sare sozial batzuetara (% 41,4); Twitter, edukiak (irudiak eta/edo luzera txikiko testuak) berehala partekatzeo mikroblogintza-plataformara (% 37,7); edo Snapchat, segundo gutxi batzuetara hartzailearen gailutik desagertzen diren argazki- edo bideo-fitxategiak bidaltzeko sare sozial eta aplikazio mugikorrera (% 19,5).

Tinder, Meetik, Badoo eta beste harreman-sare batzuetara konektatzen direnak % 5,0 dira; sare horiek aukera ematen diete erabiltzaileei beste pertsona batzuekin komunikatzeko eta geratzeko, betiere norberaren hobespenen arabera. Eta % 5etik behera daude inoiz beste sare hauetara konektatzen direnak: Tumblr, erabiltzaileei testu, irudi, bideo, esteka, aipu eta audioak argitaratzeko aukera ematen dien mikroblogintza-plataforma (% 4,7); TikTok, bideo laburrak sortu eta konpartitzeko aplikazioa (% 4,2); Pinterest, interes eta zaletasun araberrako irudiak konpartitu eta kudeatzeko plataforma (% 2,3); ThisCrush, maitasun platonikoei mezu anonimoak bidali ahal izateko asmoz sortu zen arren, gaur egun batez ere irainak edo mehatxuak bidaltzeko baliatzen den plataforma (% 1,1); Ask.fm, galderak egin eta erantzunak jasotzeko sare soziala (% 1,0); CuriousCat, inguruko jendeari galdera anonimoak egiteko aukera, galdetu zaienari libreki erantzun eta beste pertsona batzuen galdera eta erantzunak ikusteko aukera ematen duen sare soziala (% 0,7); eta Twitch (% 0,7), zuzenean bideo-jokoak ematen dituen eta ikusleei elkar eragiteko aukera ematen dizkien plataforma (iruzkinen bidez, galderak eginez eta beste). Gainera, % 2,9k dio zerrendan agertzen ez den beste sare sozial batzuk erabiltzen dituela.

1.2. Zenbait sare sozialen erabilera-maiztasuna

Jarraian, proposatutako sare sozialetako bakoitzaren erabilera-maiztasuna aurkeztuko dugu.

Gazteen % 98,2k egunero edo ia egunero (gutxienez lau egun astean) erabiltzen du WhatsApp edo berehalako mezularitzako beste aplikazio batzuk (esaterako Telegram edo Line); horrenbestez, esan daiteke ia gazte guztiak erabiltzen dutela berehalako mezularitzako aplikazioaren bat, eta, gainera, egunero erabiltzen dutela.

Instagram erabiltzen dutenek egunero edo ia egunero erabiltzen dute. Izan ere, eguneroko maiztasunez erabiltzen diren sare sozialei erreparatzen badiegu, Instagram bigarren lekuan dago, berehalako mezularitzako aplikazioen atzetik: gazteen % 74,1 konektatzen da egunero bertara. Gutxi dira Instagramera astean behingo maiztasunarekin (% 4,3) edo are txikiagoarekin (% 2,7) konektatzen diren gazteak.

Egunero Youtubera konektatzen diren gazteen ehunekoa Instagram egunero erabiltzen dutenena baino pixka bat txikiagoa da (% 73,1). Alabaina, nahiz eta egunero ez konektatu, esanguratsua da Youtuben bideoak ikusten dituzten gazteen ehunekoa (% 20,4k gutxienez astean behin, eta % 5,1ek astean behin baino gutxiagotan). Horrenbestez, ikusten da gazte guztiak konektatzen direla Youtubera, maiztasun handiago edo txikiagoan.

Gazteen herena (% 32,8) egunero edo ia egunero konektatzen da Facebookera, beste % 13,2 gutxienez astean behin konektatzen da, eta % 12,5 maiztasun txikiagoarekin.

Twitter egunero irekitzen du gazteen arteko % 17,7k. Horrez gain, % 8,8 gutxienez astean behin konektatzen da sare sozial horretara, eta % 11,3 maiztasun txikiagoarekin.

Enplegua bilatzeko sare sozialak (Linkedin, Infojobs, Indeed eta beste) ez dira egunero bisitatzen, hortik beherako maiztasunarekin baizik, askotan curriculumeko datuak eguneratzeko soilik; horrenbestez, gehiago dira astean behin baino gutxiagotan konektatzen direnak (% 20,8) astero konektatzen direnak baino (% 12,0), eta are gutxiago dira, artean, egunero konektatzen direnak (% 8,6).

Gazteen % 8,4k egunero bisitatzen du Snapchat, % 5,1ek gutxienez astean behin erabiltzen du, eta % 6,0k maiztasun txikiagoarekin.

Gazteen % 1ek baino gutxiagok bisitatzen ditu egunero gainerako sare sozialak, eta gehiago dira horietara astean behin edo maiztasun txikiagoarekin konektatzen diren gazteak. Guztira, gazteen arteko % 5ek baino gutxiagok erabiltzen ditu, maiztasuna edozein dela ere.

1.1.taula. Gazteriaren banaketa, sare sozial jakin batzuk erabiltzen dituzten maiztasunaren arabera (%)

Jarraian sare sozialen zerrenda bat irakurriko dizut eta nahiko nuke esatea zenbatero erabiltzen duzuen horietako bakoitza.					
(% horizontalak)	Egunero edo ia egunero	Gutxienez astean behin	Gutxiagotan	Inoiz ez	Guztira
WhatsApp, Telegram, Line edo bat-bateko mezularitzako beste aplikazio batzuk	98,2	0,8	0,2	0,9	100
Instagram	74,1	4,3	2,7	18,9	100
Youtube	73,7	20,4	5,1	0,8	100
Facebook	32,8	13,2	12,5	41,5	100
Twitter	17,7	8,8	11,3	62,2	100
Linkedin, Infojobs, Indeed edo lana bilatzeko edozein sare sozial	8,6	12,0	20,8	58,6	100
Snapchat	8,4	5,1	6,0	80,5	100
TikTok	0,8	1,8	1,6	95,8	100
Pinterest	0,7	1,1	0,5	97,7	100
Tinder, Meetic, Badoo edo ligatzeko edo harremanetan jartzeko beste batzuk	0,6	1,3	3,1	95,0	100
Tumblr	0,6	1,4	2,7	95,3	100
Ask.fm	0,2	0,1	0,8	98,9	100
Twitch	0,3	0,3	0,1	99,3	100
ThisCrush	0,1	0,4	0,7	98,9	100
CuriousCat	0,1	0,2	0,5	99,2	100

Jarraian, sare sozialen erabilera mutilen eta nesken artean eta adin taldearen arabera aztertuko dugu. Horretarako, kontuan hartuko dugu egunero edo ia egunero erabiltzen dituztela dioten gazteen ehunekoa.

Berehalako mezularitzako aplikazioen erabileran (WhatsApp, esaterako) ez da alderik sumatzen sexuaren arabera, baina egunero Instagram, Facebook, Snapchat eta Lindekin edo enplegua bilatzeko beste sare batzuetara konektatzen diren nesken ehunekoa mutilena baino handiagoa da. Aldiz, mutilen artean handiagoa da egunero Youtube, Twitter eta Tinder edo harremanetarako beste sare sozial batzuetara konektatzen direnen ehunekoa.

Adin taldeen arabera azterketak berretsi egiten du WhatsApp kolektibo guztietara zabaldu dela; alabaina, beste sare sozial batzuen kasuan bada alde nabarmenik: Instagramen erabilera bereziki nabarmena da adin-tarte baxuenean (15-19 urte bitarte), eta egunero erabiltzen dutenen ehunekoa erori egiten da adinak gora egin ahala. Youtube gehiago bisitatzen dute 25 urtetik beherakoek, alde nabarmenik gabe 15-19 eta 20-24 adin-tarteen artean. Facebook gehiago erabiltzen da egunero adinean aurrera egin ahala, LinkedIn eta enplegua bilatzeko beste sare batzuk bezala. Twitter gehiago erabiltzen dute 20 eta 24 urte bitartekoek. Bestetik, Snapchat oso sare gaztea da, oso pertsona gutxi konektatzen baita bertara egunero 20 urtetik gorakoek artean. Gauza bera gertatzen da TikTok aplikazioarekin: datu orokorretan apenas presentziarik ez duen arren, 15 eta 19 urte bitartekoek arteko % 2k dio egunero erabiltzen duela, eta beste % 5ek gutxienez astean behin. Azkenik, harremanetan espezializatuetako sare sozialak (Tinder, Meetic, etab.) erabiliagoak dira 20 eta 29 urte artekoek artean.

1.2. taula. Egunero edo ia egunero proposatutako sare sozialetako bakoitza erabiltzen duten gazteen ehunekoa, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)

Jarraian sare sozialen zerrenda bat irakurriko dizut eta nahiko nuke esatea zenbatero erabiltzen duzuen horietako bakoitza *						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
WhatsApp, Telegram, Line edo bat-bateko mezularitzako beste aplikazio batzuk	98,2	98,5	97,9	96,7	99,0	98,9
Instagram	74,1	79,6	68,8	89,9	75,1	58,6
Youtube	73,7	64,8	82,2	79,9	77,1	64,7
Facebook	32,8	39,5	26,2	5,2	36,2	55,3
Twitter	17,7	13,1	22,1	16,1	22,4	14,9
LinkedIn, Infojobs, Indeed edo lana bilatzeko edozein sare sozial	8,6	10,8	6,5	0,5	8,6	16,1
Snapchat	8,4	11,6	5,3	22,0	2,6	0,9
TikTok	0,8	0,8	0,8	2,0	0,0	0,4
Tinder, Meetic, Badoo edo ligatzeko edo harremanetan jartzeko beste batzuk	0,6	0,3	1,0	0,3	0,8	0,8
(n)	1512	756	756	504	504	504
* Aurkeztutako portzentajeak egunero edo ia egunero erabiltzen dituztela diotenei dagozkie						

Sailkapena gehien erabiltzen diren sareetatik gutxien erabiltzen direnetera osatuz gero, daturik aipagarriena da emakumeen artean bigarren sare sozial erabiliena –betiere WhatsApp edo antzekoen atzetik– Instagram dela, eta mutilen artean Youtube. Adin-tarteei erreparatuz gero, eta adin guztietan gazteek gehien erabiltzen duten WhatsApp aplikazioa alde batera utzita, Instagram, Youtube eta Snapchat dira (erabilienetik hasita) 20 urtetik beherakoek gehien erabiltzen dituztenak, eta 20 urtetik gorakoek artean, berriz, Youtube, Instagram eta Facebook, hurrenkera horretan.

Urrats bat harago joanez, adin-tarte bakoitzean neska eta mutilek egiten duten erabilera desberdina aztertuko dugu.

Kolektibo guztietan gailentzen den WhatsApp alde batera, ikusten da 15 eta 19 urte bitarteko neskek batez ere Instagram erabiltzen dutela, hurrenkera bigarrena Youtube dela, eta hirugarrena Snapchat. Adin bereko mutilen lehen aukera Youtube da, bigarrena Instagram eta hirugarrena Twitter.

20 eta 24 urte bitarteko nesken artean hurrenkera Instagram, Youtube, Facebook da; adin bereko mutilen artean Youtube, Instagram, Facebook.

25 eta 29 urte bitarteko nesken artean lehen aukera Facebook da, bigarrena Instagram eta hirugarrena Youtube; adin bereko mutilen artean, berriz ere Youtube da lehen aukera, Instagram bigarrena eta Facebook hirugarrena.

1.3. taula. Egunero edo ia egunero proposatutako sare sozialetako bakoitza erabiltzen duten gazteen ehunekoa, sexua eta adina konbinatuta (%)

Jarraian sare sozialen zerrenda bat irakurriko dizut eta nahiko nuke esatea zenbatero erabiltzen duzuen horietako bakoitza *							
(%)	GUZTIRA	15-19 urte		20-24 urte		25-29 urte	
		Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
WhatsApp, Telegram, Line edo bat-bateko mezularitzako beste aplikazio batzuk	98,2	97,4	96,2	98,9	99,1	99,2	98,5
Instagram	74,1	92,5	87,5	82,5	68,0	65,7	51,5
Youtube	73,7	68,1	90,9	70,2	83,8	57,2	72,2
Facebook	32,8	5,9	4,5	43,7	29,0	66,0	44,6
Twitter	17,7	13,8	18,3	16,1	28,3	9,8	19,9
Linkedin, Infojobs, Indeed edo lana bilatzeko edozein sare sozial	8,6	0,5	0,5	11,1	6,2	19,7	12,4
Snapchat	8,4	30,0	14,5	4,4	0,9	1,4	0,4
TikTok	0,8	2,4	1,6	0,0	0,0	0,0	0,7
Tinder, Meetic, Badoo edo ligatzeko edo harremanetan jartzeko beste batzuk	0,6	0,0	0,5	1,0	0,6	0,0	1,7
(n)	1512	252	252	252	252	252	252
* Aurkeztutako portzentajeak egunero edo ia egunero erabiltzen dituztela diotenei dagozkie							

Horrenbestez, ondoriozta dezakegu 25 urtetik beherako nesken artean Instagram dela sare sozial erabiliena, eta adin horretatik gora Facebook aurreratzen zaiola, gutxiagatik bada ere. Mutilen artean Youtube da sare erabiliena edozein adinetan, egunero erabiltzen dutenen ehunekoa adinak gora egin ahala urritzen den arren.

1.3. Sare sozial gogokoena

Gazteei galdetzen zaienean zein sare sozial hautatuko luketen bakar batera konektatu ahal izateko egoera hipotetikoan (betiere bazter utzita berehalako mezularitzako aplikazioak, WhatsApp esaterako), erantzun espontaneo errepikatuena Instagram da —eta aurretik ikusitako erabilera-ehunekoei erreparatuta, ez da datu harrigarria—. Hori bai, bitxia da gizonen artean ere aipatuena izatea, eta, gainera, Youtube baino dezentez gehiago, errealitatean gehiago baitira egunero Youtubera konektatzen diren mutilak, Instagram erabiltzen dutenak baino.


Guztira, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 52,1ek Instagramen alde egingo luke. Tarte handi batera, % 17,0k Facebook hautatuko luke, % 14,5ek Youtube eta % 9,6k Twitter. Gainera, % 1,6k LinkedIn edo Infojobs aipatzen du, eta soilik % 0,5ek Snapchat. Horrez gain, % 1,6k beste sare sozial batzuk aipatzen ditu espontaneoki, baina oso jende gutxi aipatzen du horietako bakoitza, % 0,5ek baino gutxiagok. Eta gainerako % 3,1ek ez daki edo ez luke bakar bat ere hautatuko.

Instagramen aldeko joera logikoa da, Naiara Pérez de Villarrealek (Interneten eta tresna digitaletan espezializatutako aholkularia) Gazteen Euskal Behatokia egindako eta 2018ko¹ urriko Gaztedoc buletinean argitaratutako elkarrizketa baten zioenaren arabera: “Nerabeei, oro har, bisuala gustatzen zaie, iragankorra dena. Interneten nabigatzeko denbora mugatua denez, ez dute kontsumitu nahi irakurtzeko ahalegina eta batez ere denbora eskatzen dituen testu-edukirik. Berehala ikusi nahi dute, eta horrexegatik dira erabilienak haien

¹ Gazteen Euskal Behatokia (2018): Gaztedoc, 2018ko urrikoa [online] Eskuragarri hemen: http://www.gazteaukera.euskadi.eus/r58-7657/eu/contenidos/noticia/behatokiko_buletina_10_18/eu_buletina/behatokiko_boletina.html [Kontsulta-data: 2019/04/15]

artean ikus-entzunezko edukietan oinarritutako plataformak. Instagramen bat-batekotasuna eta istorioak kontatu eta irakurtzeko ahalmena baloratzen dituzte gehienbat”..

1.2.grafikoa. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen sare sozial gogokoena (%)



Emakumeek gizonezkoek baino neurri handiagoan aukeratuko lukete Instagram (% 59,3 eta % 45,1, hurrenez hurren), eta Facebook ere gizonezkoek baino gehiago aipatzen dute emakumeek (emakumeen % 19,8k eta gizonezkoen % 14,3k). Gizonezkoek batez ere Instagram aukeratuko luketen arren, emakumeek baino gehiago aipatzen dituzte Youtube eta Twitter: gizonezkoen % 20,6k egingo luke Youtuberaren alde, emakumeen % 8,2ren aurrean; bestalde, gizonezkoen % 12,3k eta emakumeen % 6,8k hautatuko luke Twitter, baldin eta sare sozial bakar batera konektatzerik izango balute.

Aztertutako hiru adin taldeetan litzateke Instagram lehen aukera, baina alde handia dago ehunekoetan: 15-19 adin-tartean % 71,2k aukeratuko luke, 20-24 adin-tartean % 51,1ek, eta, azkenik, 25-29 adin-tartean, % 35,1ek. Aldiz, Facebook aukeratuko luketenen ehunekoek goraka egiten dute adinarekin batera, eta 25-29 adin-tartean ia-ia Instagram aukeratuko luketenak bezainbeste dira (% 33,0). Youtube hautatuko luketenen artean ez da alde nabarmenik adinaren arabera. Eta, azkenik, Twitterren aukera nagusiagoa da 20 eta 24 urte bitartekoen artean, nahiz eta Instagram, Youtube edo Facebook baino ehuneko apalagoekin (% 13,3).

1.4. taula. Sare sozial gogokoena, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)

Sare sozial bakar batera konektatu ahal izango bazenu, WhatsApp edo Telegram edo horrelako mugikorretarako aplikazioak kenduta, zein sare sozial aukeratuko zenuke?						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Instagram	52,1	59,3	45,1	71,2	51,1	35,1
Facebook	17,0	19,8	14,3	1,8	14,9	33,0
Youtube	14,5	8,2	20,6	15,3	14,7	13,5
Twitter	9,6	6,8	12,3	7,6	13,3	8,2
Linkedin edo Infojobs	1,6	1,8	1,4	0,0	1,7	2,9
Beste batzuk edo ez du erantzun	5,2	4,1	6,3	4,1	4,3	7,3
Guztira	100	100	100	100	100	100
(n)	1512	756	756	504	504	504

Sexua eta adina konbinatuz gero, berriro ere Instagram da sare sozial aipatuena kolektibo guztietan; alabaina, hiru adin taldeetan dute emakumeek gizonazkoek baino gogokoago sare sozial hori. Alderantziz, Youtube gehiago aipatzen dute gizonazkoek hiru adin taldeetan. Bestetik, Facebook eta Twitterren inguruan sexuaren arabera agertzen diren aldeak (Facebook gehiago aipatzen dute emakumeek eta Twitter gizonazkoek) 20 urtetik gora sumatzen dira, lehenago ez.

1.5. taula. Sare sozial gogokoena, sexua eta adina konbinatuta (%)

Sare sozial bakar batera konektatu ahal izango bazenu, WhatsApp edo Telegram edo horrelako mugikorretarako aplikazioak kenduta, zein sare sozial aukeratuko zenuke?						
(%)	15-19 urte		20-24 urte		25-29 urte	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Instagram	77,2	65,6	61,6	41,1	41,3	29,0
Facebook	2,3	1,3	17,2	12,8	37,7	28,3
Youtube	7,6	22,5	8,5	20,7	8,4	18,6
Twitter	7,6	7,6	7,9	18,4	5,0	11,3
Linkedin edo Infojobs	0,0	0,0	1,9	1,5	3,1	2,7
Beste batzuk edo ez du erantzun	5,3	2,9	2,9	5,5	4,5	10,2
Guztira	100	100	100	100	100	100
(n)	252	252	252	252	252	252

Bestalde, ikusten da Instagramen aldeko hautua askoz handiagoa dela ikasleen artean (% 60,7), lanean edo langabezian dauden artean baino (% 39,7 eta % 34,0, hurrenez hurren), nahiz eta talde horietan ere sare sozial hautatuena den. Alderantziz, soilik ikasleen % 9,4k hautatuko luke Facebook, baina ehunekoak dezentz handiagoak dira lanean dauden artean (% 29,3) eta langabezian dauden artean (% 23,9). Eraitza logikoa dirudi, aintzat hartzen badira okupazioaren eta adinaren harremana, eta adinaren eta sare sozial gogokoaren artekoa. Hartara, adinean gora egin ahala, Facebooken aldeko hautua ere hazi eta Instagramen aldekoa jaitsi egiten da; aldi berean, adinarekin batera hazi egiten da lanean edo langabezian dauden pertsonen kopurua, eta ikasleena, berriz, jaitsi.

1.4. Hizkuntza erabiliena sare sozialetan

Sare sozialetan hizkuntzarik erabiliena gaztelania da. 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 81,5ek dio sare sozialetan batez ere gaztelania darabilela; % 15,0k dio bereziki euskara erabiltzen duela, eta % 3,3k ingelesa.


Adinarekin batera igo egiten da, gutxi bada ere, sare sozialetan nagusiki euskara eta ingelesa erabiltzeko joera. Bestalde, neskek mutilek baino gehiago diote euskara darabiltela hizkuntza nagusi gisa, baina aldea ez da handia.

1.6.taula. Hizkuntza erabiliena sare sozialetan, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)

Zein hizkuntza erabiltzen duzu gehien sare sozialetan? Euskara, gaztelania, ingelesa edo beste bat?						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Gaztelania	81,5	80,1	82,8	85,3	80,4	78,9
Euskara	15,0	16,8	13,3	12,0	15,8	17,0
Ingelesa	3,3	2,8	3,7	2,7	3,3	3,8
Beste bat	0,1	0,1	0,1	0,0	0,1	0,3
Ez du erantzun	0,1	0,2	0,1	0,0	0,5	0,0
Guztira	100	100	100	100	100	100
(n)	1512	756	756	504	504	504

Lurralde historikoaren arabera azterketa egin ondoren, ikusten dugu Gipuzkoan, non euskararen ezagutza handiena den, gazteen % 30,0k euskara erabiltzen duela batez ere txatean idaztean edo sare sozialetan edukiak argitaratzean; Araban eta Bizkaian ehunekoak askoz baxuagoak dira, % 3,5eko eta % 8,4koa, hurrenez hurren.

1.3.grafikoa. Euskararen erabilera nagusia sare sozialetan, lurralde historikoaren arabera (%)



Gazte euskaldunei, hau da, euskaraz oso ondo edo nahiko ondo hitz egiten dutenei erreparatuz gero, ikusten dugu igo egiten dela zertxobait sare sozialetan batez ere euskaraz aritzen direnen ehunekoa, % 18,4raino. Igo egiten dira, halaber, euskararen erabileraren ehunekoak lurralde guztietan, baina dezentez altuagoa da orain

ere Gipuzkoan (% 32,6), Bizkaian eta Araban baino (% 10,8 eta % 5,1, hurrenez hurren). Izan ere, norberaren ezagutzaz gain, kontuan hartu behar da sare sozialetan mintzakide dituzten pertsonen ezagutza ere.

1.5. Erabilera, gurasoenarekin konparatuta

Gazte gehienek (% 86,1) diote beren gurasoek baino gehiago erabiltzen dituztela sare sozialak. % 8,0k dio gurasoek beste erabiltzen dituela sare sozialak. Eta soilik % 5,6k dio gurasoek baino gutxiago erabiltzen dituela sare sozialak.

Adinean gora egin ahala, hazi egiten da sare sozialak gurasoek beste edo haiek baino gutxiago erabiltzen dituztela dioten gazteen kopurua. Edonola ere, hiru adin taldeetan gazteen % 80k baino gehiagok aitortzen dute gurasoek baino gehiago konektatzen direla sare sozialetara.

1.7.taula. Sare sozialen erabilera, gurasoenarekin konparatuta, sexuaren eta adinaren arabera (%)


Zure gurasoekin konparatuta, zer esango zenuke: zure aitak edo amak baino gehiago, haiek beste edo gutxiago erabiltzen dituztela sare sozialak?						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Gehiago	86,1	86,0	86,1	89,5	86,3	82,6
Haiek beste	8,0	8,8	7,2	5,9	7,8	10,1
Gutxiago	5,6	4,7	6,4	3,9	5,4	7,3
Ez du erantzun	0,4	0,5	0,3	0,7	0,5	0,0
Guztira	100	100	100	100	100	100
(n)	1512	756	756	504	504	504

1.6. Sarbidea ordainpeko Interneteko edukietara

Gazteen erdiak baino zertxobait gehiagok (% 55,0k) badu sartzerik Interneteko ordainpeko edukietara: Netflix, HBO, Spotify, Amazon prime, Youtube prime, etab.

Ez da alde nabarmenik hautematen sexuaren edo adinaren arabera, ezta gurasoekin edo beren kasa bizi direnen artean ere. Kasu guztietan, ehunekoa % 52 eta % 57 artekoa da.

1.4.grafikoa. Ordainpeko sarbidea Interneteko edukietara, sexuaren, adin taldearen eta emantzipazio-egoeraren arabera (%)



1.7. Internet eta sare sozialez norberak egiten duen erabileraren pertzepzioa

Sare sozialen erabilerari buruzko zenbait baieztapen planteatu zaizkie gazteei, beraien artean egoera horiek zenbateraino zabaldua dauden jakin nahian.

Egoera horien artean, zabalduena goizean ohetik jaikitzearekin bat WhatsApp edo sare sozialak irekitzea da. Hurrengoak, baina jauzi nabarmen batekin, gauean berandu arte WhatsAppeko mezuak bidaltzen edo sare sozialetara konektatuta geratzea da. Eta, maiztasunari dagokionez, are tarte handiagora daude eskolan edo lanean WhatsAppi edo sare sozialetako alerta-abisuei adi egotea, eta sare sozialetan konektatuta denbora luzea emateagatik lagunek edo familiakoek zerbait esan izatea. Azkenik, gazte gutxi batzuek aitortu dute umore txarrean jartzen direla Interneteko konexiorik gabeko lekuetan daudenean.

1.8. taula. Sare sozialen erabilerari buruzko zenbait egoera izaten diren maiztasuna (%)

Orain egoera batzuei buruzko baieztapenak irakurriko dizkizut. Esadazu, mesedez, zenbatero gertatzen zaizun zuri gauza bera: askotan, noizbait edo inoiz ez.						
(% horizontalak)	Askotan	Noizbait	Inoiz ez	Ez du erantzun	Guztira	(n)
Goizean jaikitzen zarenean egiten duzun lehen gauza WhatsApp edo sare sozialak irekitzea da	49,0	35,5	15,5	0,0	100	1512
Gauean berandu arte geratu zara WhatsAppeko mezuak bidaltzen edo sare sozialetara konektatuta	20,1	59,4	20,5	0,0	100	1512
Klasean edo lanean zaudenean WhatsAppeko edo sare sozialetako alerta-abisuei adi egoten zara	12,1	44,0	43,9	0,0	100	1512
Lagunek edo familiakoek zerbait esan dizute sare sozialetan konektatuta denbora luzea ematen duzulako	11,6	41,0	47,4	0,0	100	1512
Internerako konexiorik ez duen leku batean zaudenean umore txarrean jartzen zara	5,4	29,9	64,5	0,2	100	1512

Jarraian datu orokorrak, bai eta sexuaren eta adinaren arabera aldea ere, aztertuko ditugu, egoera horietako bakoitzari dagokionez.

15 eta 29 urte bitarteko gazteen ia erdiak (% 49,0k) dio askotan ohetik jaikitzerakoan egiten duen lehen gauza sare sozialetara (WhatsApp barne) konektatzea dela. % 35,5ek esaten du noizbait jokatzeko duela horrela, eta soilik % 15,5ek ez duela inolaz ere inoiz egiten.

Emakumeek eta 20-24 adin-tartekoek adierazten dute gehien jaikitzerakoan askotan egiten duten lehen gauza hori dela (% 58,3k eta % 56,4k, hurrenez hurren).

Bost gaztetik batek (% 20,1ek) aitortzen du sarritan gauean berandu arte geratzen dela WhatsAppeko mezuak bidaltzen edo sare sozialetara konektatuta. % 59,4k dio noizbait geratu dela sare sozialekin berandu arte. Aitzitik, % 20,5ek esan du ez dela inoiz arrazoi horregatik gauean oso berandu arte esna geratu.

Emakumeek eta 25 urtetik beherakoek aitortzen dute gehien askotan geratu direla oso berandu arte esna, sare sozialetara konektatuta egoteagatik. Horrela dio emakumeen arteko % 22,7k, 15 eta 19 urte bitartekoen % 23,3k, eta 20 eta 24 urte bitartekoen % 23,0k. Sexua eta adina konbinatuz gero, ikusten da, hain zuzen ere, 15 eta 19 urte bitarteko emakumeek direla gehien aitortzen dutenak askotan geratu izana berandu arte sare sozialetan (% 29,3k).

Gazteen % 12,1ek dio askotan WhatsAppi edo sare sozialetako alerta-abisuei adi egoten dela eskolan edo lanean. % 44,0k dio noizbait egoten dela mezuei edo alerta-abisuei adi eskolan edo lanean. Eta erdia baino gutxiago dira (% 43,9) lanean edo ikasten ari direnean sare sozialei kasurik ez dietela egiten diotenak.

Ez da alderik sumatzen ikasleen eta lanean daudenen artean. Lehen taldean % 12,1ek dio askotan egoten dela sare sozialei adi eskolan, eta langileen taldean % 12,2k gauza bera dio baina lanean.

Ez da adinaren araberako alde nabarmenik sumatzen hiru talde aztertuen artean, baina bai adingabeei erreparatzen badiegu. 15 eta 17 urte bitartekoek ezin dute (teorian behintzat) mugikorra erabili eskolan dauden bitartean, eta askoz gutxiago dira horien artean WhatsAppi edo sare sozialetako alerta-abisuei adi egoten direla diotenak: % 4,4k dio askotan egiten duela, eta % 21,8k noizbait. Gehienek (% 73,8k) diote eskolan dauden bitartean ez dietela sare sozialei arretarik egiten.

Bestalde, gazteen % 11,6k dio beren lagun edo senideek askotan oharren bat egin diotela sare sozialetara konektatuta ematen duen denboraren kontura. % 41,0k dio askotan ezetz, baina noizbait oharren bat egin izan diotela sare sozialetara konektatuta ematen duten denboragatik. Aldiz, % 47,4k dio ez diotela inoiz horren inguruan ezer esan.

20 urtetik beherako kolektiboak aipatzen du gehien senide edo lagunek esan diotela zerbait sare sozialetan emandako denboraren harira: % 20,9ri askotan esan diote halakorik, eta % 52,6ri noizbait.

Azkenik, soilik gazteen 5,4k aitortzen du askotan jartzen dela umore txarrean Interneteko konexiorik gabeko lekuetan, % 29,9k dio noizbait jarri izan dela umore txarrean horrelako egoera batean. Baina gehiengoak (% 64,5ek) dio ez zaiola inoiz halakorik gertatu.

Artean ere gutxiengoa diren arren, 15 eta 19 urte bitarteko gazteen artean metatzen da Interneteko konexiorik gabe umore txarrean jartzen den jende gehien: % 8,2 askotan eta % 34,0 noizbait.

1.9.taula. Sare sozialen erabilerari buruzko zenbait egoera izaten diren maiztasuna, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)

Orain egoera batzuei buruzko baieztapenak irakurriko dizkizut. Esadazu, mesedez, zenbatero gertatzen zaizun zuri gauza bera: askotan, noizbait edo inoiz ez.						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
GOIZEAN JAIKITZEN ZARENEAN EGITEN DUZUN LEHEN GAUZA WHATSAPP EDO SARE SOZIALAK IREKITZEADA						
Askotan	49,0	58,3	40,1	44,8	56,4	46,4
Noizbait	35,5	29,4	41,4	36,5	32,8	37,0
Inoiz ez	15,5	12,4	18,5	18,8	10,8	16,6
Guztira	100	100	100	100	100	100
GAUEAN BERANDU ARTE GERATU ZARA WHATSAPPEKO MEZUAK BIDALTZEN EDO SARE SOZIALETARA KONEKTATUTA						
Askotan	20,1	22,7	17,6	23,3	23,0	14,5
Noizbait	59,4	57,7	61,1	62,8	57,7	57,7
Inoiz ez	20,5	19,6	21,4	13,8	19,3	27,7
Guztira	100	100	100	100	100	100
KLASEAN EDO LANEAN ZAUDENEAN WHATSAPPEKO EDO SARE SOZIALETAKO ALERTA-ABISUEI ADI EGOTEN ZARA						
Askotan	12,1	13,4	10,9	11,0	11,7	13,5
Noizbait	44,0	44,5	43,5	34,2	54,7	43,6
Inoiz ez	43,9	42,0	45,6	54,7	33,6	43,0
Guztira	100	100	100	100	100	100
LAGUNEK EDO FAMILIAKOEK ZERBAIT ESAN DIZUTE SARE SOZIALETAN KONEKTATUTA DENBORA LUZEA EMATEN DUZULAKO						
Askotan	11,6	13,4	10,0	20,9	8,0	6,2
Noizbait	41,0	45,0	37,1	52,6	38,7	32,2
Inoiz ez	47,4	41,6	53,0	26,5	53,3	61,5
Guztira	100	100	100	100	100	100
INTERNETERAKO KONEXIORIK EZ DUEN LEKU BATEAN ZAUDENEAN UMORE TXARREAN JARTZEN ZARA						
Askotan	5,4	5,9	5,0	8,2	4,0	4,1
Noizbait	29,9	32,5	27,4	34,0	29,3	26,7
Inoiz ez	64,5	61,3	67,6	57,6	66,7	68,9
Ez du erantzun	0,1	0,2	0,1	0,1	0,0	0,3
Guztira	100	100	100	100	100	100
(n)	1512	756	756	504	504	504

2.

INTERNETEN ETA SARE SOZIALETAN ARITZEN DIREN JARDUERAK

Ikusi dugu zein maiztasunarekin konektatzen diren Euskadiko gazteak sare sozialetara, edo zenbatetan egoten diren sare sozialen erabilerari loturiko zenbait egoeratan. Segidan, zehatzago aztertuko dugu zein jarduerak garatzen dituzten sare sozialetara edo Internetera konektatuta daudenean.

2.1. Zenbait jarduera motatan aritzeko maiztasuna

Gazteei Internet edo sare sozialen bidez burutu daitezkeen zenbait jarduerari buruz galdetu diegu, baina ikasketekin edo lanarekin zerikusi zuzena dutenak baztertuta; hots, norberaren ekimenez gauzatu daitezkeen jarduerak dira, eta ez halaberharrez edo derrigorrean.

Ikerketa taldeak proposatutako zerrenda da, eta era askotako jarduerak kontuan hartu dira, baina aitortu behar da badirela gazteek burutu ditzaketen eta zerrendan sartu ez diren beste jarduera mota batzuk ere.

Emaitzen arabera, hiru multzotan bana ditzakegu jarduera horiek:

- Lehen multzoa gazte gehienek egunero egiten dituzten jarduerak osatzen dute, esaterako musika entzutea eta bideo edo tutorialak (edozein gairi buruzkoak) ikustea.
- Bigarren multzoan sartzen dira gazte gehienek egiten dituzten jarduerak, nahiz eta ez eguneroko maiztasunarekin. Horien artean daude prentsa irakurtzea, serieak, pelikulak edo dokumentalak ikustea, edozein motatako edukiak argitaratu edo zintzilikatzea, Skype, FaceTime edo antzeko plataformak erabiliz bideodeiak egitea, eta produktu edo zerbitzuak erosi edo saltzea.
- Azken multzoan daude gazte gehienek inoiz egiten ez dituztela dioten jarduerak. Horien artean daude beste pertsona batzuekin konektatuta bideokontsola bidezko jokoetan aritzea, dirua irabazteko asmorik gabe, albisteei buruzko iritzia ematea edo iruzkinak egitea, podcastak entzutea, lehiaketetan edo zozketetan parte hartzea, pornografia ikustea, bikotekidearekin edo lagunekin izaera sexualeko eduki pertsonalak partekatzea, kirol-apustuak egitea, eta, azkenik, dirua irabazteko asmoz, online-jokoetan aritzea, hala nola pokerrean edo antzekoetan.

Taula honetan proposatutako jarduera bakoitzean aritzen direnen kopuruari eta jarduera horien maiztasunari buruzko ehuneko orokorrak adierazten dira.

2.1.taula. Interneten edo sare sozialetan zenbait jardueratan aritzeko maiztasuna (%)

Orain jarduera batzuen zerrenda irakurriko dizut. Esadazu, mesedez, zenbatero egiten duzun sare sozialetan edo Interneten horietako jarduera bakoitza: egunero edo ia egunero, astean behin gutxienez, gutxiagotan edo inoiz ez.						
(% horizontalak)	Egunero edo ia egunero	Gutxienez astean behin	Gutxiagotan	Inoiz ez	Ez du erantzun	Guztira
Musika entzun	86,3	7,8	3,9	2,0	0,0	100
Bideoak edo tutorialak ikusi	56,4	24,3	15,0	4,3	0,0	100
Prentsa irakurri	44,4	23,0	14,3	18,3	0,0	100
Serieak, pelikulak edota dokumentalak ikusi	42,4	35,5	16,1	6,0	0,0	100
Beste pertsona batzuekin konektatuta Play Station, Xbox edo antzekoetako jokoetan aritu, dirua irabazteko asmorik gabe	12,7	11,2	10,6	65,4	0,0	100
Edozein motatako edukiak argitaratu edo zintzilikatu: argazkiak, bideoak, musika, testuak...	10,5	30,7	43,1	15,7	0,0	100
Albisteei buruzko iritzia eman edo iruzkinak egin	8,1	11,7	19,9	60,2	0,0	100
Podcastak entzun	5,2	9,8	15,3	69,3	0,5	100
Skype, FaceTime edo antzekoak erabiliz bideo bidezko deiak egin	4,6	16,1	38,8	40,5	0,0	100
Pornografia ikusi	4,5	16,8	16,2	62,5	0,1	100
Lehiaketetan (sariaketetan) edo zozketetan parte hartu	1,6	7,1	33,8	57,5	0,1	100
Produktuak edo zerbitzuak erosi edo saldu	1,4	11,1	49,4	37,9	0,3	100
Zure bikotekidearekin edo lagunekin izaera sexualeko eduki pertsonalak partekatu	0,9	2,2	10,4	86,3	0,2	100
Kirol-apustuak egin	0,7	3,8	10,4	85,1	0,0	100
On line jokatu daitezkeen dirua irabazteko jokoetan aritu, hala nola, pokerrean edo antzekoetan	0,3	1,0	2,1	96,5	0,1	100

Jarraian, jarduera horietako bakoitzaren maiztasuna aztertuko dugu, sexuaren eta adinaren arabera.

Internet edo sare sozialen bitartez musika entzuteko ohitura zabalduago dago kolektibo gazteenean, 15 eta 19 urtekoen artean. Kolektibo horren % 94,1ek (batezbestekotik 8 puntu gorago) egunero entzuten du musika era horretan, eta ehunekoak murriztu egiten da adinean gora egin ahala, 25-29 adin-tartean % 77,0raino iristeraino. Emakume gazteek maizago entzuten omen dute musika Internet edo sare sozialen bitartez gizonezko gazteek baino, baina aldea ez da nabarmentzeko modukoa.

Gazte gehienek diote, halaber, egunero ikusten dituztela bideo edo tutorialak (% 56,4), baina jarduera horren ehunekoak ez dira musika entzutearen adinako zifretara heltzen. Gizonezkoek emakumeek baino gehiago ikusten dituzte bideo eta tutorialak; egunero ari direnen gizonezkoen ehunekoak % 63,5ekoa da, eta % 49,1ekoa emakumeena. 25 urtetik beherakoek 25-29 adin taldekoek baino sarriago ikusten dituzte bideo edo tutorialak, baina, nolanahi ere, azken kolektibo horretan egunero aritzen direnen ehunekoak % 50ekoa gainditzen du. Sexuaren eta adinaren azterketa konbinatuak erakusten du aztertutako adin-tarte guztietan nagusitzen zaizkiela gizonezkoak emakumeei egunero bideo edo tutorialak ikusten dituztenen artean. Egunero ikusten dutenen artean ehuneko handiena 25 urtetik beherako gizonezkoek dagokie (% 66,7).

Egunero Interneten prentsa irakurtzen dutenen ehunekoak ez da gazteen erdira iristen, baina ez da hortik urrun ere (% 44,4). Horiek dira datu orokorrak; izan ere, 20 urtetik beherakoek artean apenas bostetik batek irakurtzen duen prentsa Interneten egunero (% 19,4), baina adinarekin batera igo egiten da prentsa digitala

egunero edo ia egunero irakurtzen dutenen ehunekoa: % 52,7koa da 20-24 adin-tartean, eta % 60,3koa 25-29 urte artekoen artean. Ez dago alde nabarmenik gizonen eta emakumeen artean.

Antzekoa da, halaber, egunero serieak, pelikulak edo dokumentalak ikusten dituztenen ehunekoa (% 42,4); hori ere erditik behera. Ehuneko hori egunero prentsa irakurtzen dutenena baino pixka bat txikiagoa den arren, gehiago dira gutxienez astean behin serieak edo pelikulak ikusten dituzten gazteak, maiztasun berarekin prentsa irakurtzen dutenak baino. Are gehiago, bakarrik % 6,0k dio ez duela inoiz serie edo pelikularik ikusten, baina % 18,3k dio ez duela prentsa inoiz irakurtzen. 25 eta 29 urte bitartekoak dira egunero serie edo pelikulak ikusten dituztela gehien diotenak, baina kasu horretan ere ez dira gehiengo osatzera iristen (% 47,6). Ez da alde nabarmenik igartzen gizon eta emakumeen artean.

Gazteen arteko hamarretik batek (% 10,5) edukiak argitaratzen ditu egunero Interneten edo sare sozialetan: argazkiak, bideoak, testuak, musika etab. Gazte gehienek argitaratzen dituzte edukiak, baina ez egunero (% 73,8). Inoiz ezer argitaratu ez dutenak % 15,7 dira. Egunero edukiak argitaratzen dituzten neskak gutxiengo dira, baina ia gizonezkoen bikoitza (% 13,6 neskak, eta % 7,5 mutilak). Alderantziz, sare sozialetan inoiz ezer argitaratu ez duten zifrei erreparatzen badiugu, gizon gazteen kopuruak bikoiztu egiten du emakumeena (% 21,2 eta % 10,0, hurrenez hurren). Bestalde, adinean gora egin ahala, orduan eta handiagoa da sare sozialetan inoiz ezer argitaratu ez duten ehunekoa, zeina % 20,5koa baita 25 eta 29 urte artekoen artean. Sexuaren eta adinaren analisi konbinatuak erakusten du 15 eta 19 urte bitarteko neskak direla egunero edukiak (argazkiak, bideoak, testuak...) argitaratzen dituztela gehien diotenak.

Egunero Skype, FaceTime edo antzeko plataformak erabiliz bideodeiak egiten dituztenen proportzioa hogei gaztetik batekoa da (% 4,6). Oso modu minoritarioan bada ere, ikusten da bideodei gehien egiten dituztenak 15 eta 19 urte bitartekoa gazteak direla, eta adinean gora egin ahala urritu egiten dela ehunekoa. Alderantziz, adinean gora egin ahala handitu egiten da inoiz bideodeirik egiten ez dituztenen ehunekoa (% 47,7koa 25 eta 29 urte bitartekoaren artean). Gizon gazteen artean ia erdiak (zehazki % 48,5ak) dio ez duela inoiz bideodeirik egiten, emakumeen artean jasotako ehunekoa (% 32,2) baino dezentz handiagoa.

Produktu edo zerbitzuak erosi edo saltzea ez da egunero egiten, baina hamar gaztetik batek egiten du halakorik astean behin (% 1,4k egunero, eta % 11,1ek gutxienez astean behin). Egunero Interneten salerosketetan aritzen direnak eta gutxienez astean behin egiten dutenak batuz gero, ikusten da ez dagoela alderik gizon eta emakume gazteen artean, baina bai adinaren arabera: 15-19 adin-tartean ehunekoa % 6,5koa da, 20-24 tartean % 12,0ra igoen da, eta 25-29 adin taldean % 18,3ra.

Okupazioak ahalmen ekonomiko handiago edo txikiagoa baldintzatzen du, eta emantzipazio-egoerak etxeko erosketak egin beharra; bada, bi faktore horiek ere eragiten dute jardura honetan. Ikasleen % 8,3k aste guztietan egiten dute erosketak edo salmentarik Internet bidez, eta lanean dauden artean ehunekoa % 18,8ra igoen da. Gainera, gurasoekin bizi direnen artean gutxienez astean behin Internet bidez salerosketak egiten dituztenen ehunekoa % 11,8koa da, eta emantzipatuta dauden artean % 19,7koa.

2.2.taula. Interneten edo sare sozialetan zenbait jardueratan aritzeko maiztasuna, sexuaren eta adin taldearen arabera (I) (%)

Orain jarduera batzuen zerrenda irakurriko dizut. Esadazu, mesedez, zenbatero egiten duzun sare sozialetan edo Interneten horietako jarduera bakoitza: egunero edo ia egunero, astean behin gutxienez, gutxiagotan edo inoiz ez.						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
MUSIKA ENTZUN						
Egunero edo ia egunero	86,3	88,5	84,3	94,1	88,8	77,0
Astean behin gutxienez	7,8	7,0	8,6	3,5	5,8	13,6
Gutxiagotan	3,9	3,7	4,1	2,1	3,5	5,8
Inoiz ez	2,0	0,9	3,0	0,3	1,9	3,6
Guztira	100	100	100	100	100	100
BIDEOAK EDO TUTORIALAK IKUSI						
Egunero edo ia egunero	56,4	49,1	63,5	58,0	59,6	52,2
Astean behin gutxienez	24,3	28,1	20,6	22,9	21,7	27,8
Gutxiagotan	15,0	17,2	12,8	14,2	15,0	15,8
Inoiz ez	4,3	5,6	3,1	5,0	3,8	4,1
Guztira	100	100	100	100	100	100
PRENTSA IRAKURRI						
Egunero edo ia egunero	44,4	42,4	46,3	19,4	52,7	60,3
Astean behin gutxienez	23,0	22,7	23,2	27,8	25,0	16,6
Gutxiagotan	14,3	15,5	13,2	22,2	11,2	9,8
Inoiz ez	18,3	19,5	17,2	30,6	11,1	13,3
Guztira	100	100	100	100	100	100
SERIEAK, PELIKULAK EDO TA DOKUMENTALAK IKUSI						
Egunero edo ia egunero	42,4	43,2	41,6	40,2	38,9	47,6
Astean behin gutxienez	35,5	33,5	37,4	38,0	37,4	31,4
Gutxiagotan	16,1	17,8	14,5	16,7	19,1	12,8
Inoiz ez	6,0	5,4	6,6	5,1	4,5	8,2
Guztira	100	100	100	100	100	100
EDOZEIN MOTATAKO EDUKIAK ARGITARATU EDO ZINTZILIKATU: ARGAZKIAK, BIDEOAK, MUSIKA, TESTUAK...						
Egunero edo ia egunero	10,5	13,6	7,5	11,6	9,3	10,6
Astean behin gutxienez	30,7	30,9	30,5	29,8	30,6	31,6
Gutxiagotan	43,1	45,6	40,7	47,1	45,3	37,3
Inoiz ez	15,7	10,0	21,2	11,4	14,9	20,5
Guztira	100	100	100	100	100	100
SKYPE, FACETIME EDO ANTZEKOAK ERABILIZ BIDEO BIDEZKO DEIAK EGIN						
Egunero edo ia egunero	4,6	4,5	4,7	6,0	4,2	3,8
Astean behin gutxienez	16,1	18,0	14,2	20,9	14,6	12,9
Gutxiagotan	38,8	45,2	32,5	42,1	38,8	35,6
Inoiz ez	40,5	32,2	48,5	31,0	42,4	47,7
Guztira	100	100	100	100	100	100
PRODUKTUAK EDO ZERBITZUAK EROSI EDO SALDU						
Egunero edo ia egunero	1,4	1,1	1,6	1,4	1,1	1,5
Astean behin gutxienez	11,1	10,5	11,6	5,1	10,9	16,8
Gutxiagotan	49,4	51,5	47,4	35,1	55,5	57,2
Inoiz ez	37,9	36,7	39,0	58,0	32,2	24,2
Ez du erantzun	0,3	0,3	0,3	0,4	0,2	0,3
Guztira	100	100	100	100	100	100
(n)	1512	756	756	504	504	504

Aurreko taulak gazte gehienek egiten edo inoiz egin dituzten jarduerak biltzen ditu, maiztasuna gorabehera. Hurrengo taulan gazteek inoiz egin ez dutela dioten jarduerak aurkeztuko dira, eta aldeak aztertuko dira sexuaren eta adinaren arabera.

2.3.taula. Interneten edo sare sozialetan zenbait jardueratan aritzeko maiztasuna, sexuaren eta adin taldearen arabera (II) (%)

Orain jarduera batzuen zerrenda irakurriko ditzut. Esadazu, mesedez, zenbatero egiten duzun sare sozialetan edo Interneten horietako jarduera bakoitza: egunero edo ia egunero, astean behin gutxienez, gutxiagotan edo inoiz ez.						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
BESTE PERTSONA BATZUEKIN KONEKTATUTA PLAY STATION, XBOX EDO ANTZEKOETAKO JOKOETAN ARITU, DIRUA IRABAZTEKO ASMORIK GABE						
Egunero edo ia egunero	12,7	2,0	23,0	17,4	11,7	9,2
Astean behin gutxienez	11,2	2,6	19,5	16,8	11,2	6,0
Gutxiagotan	10,6	6,0	15,0	11,0	10,0	10,9
Inoiz ez	65,4	89,3	42,5	54,8	67,1	73,9
Guztira	100	100	100	100	100	100
ALBISTEEI BURUZKO IRITZIA EMAN EDO IRUZKINAK EGIN						
Egunero edo ia egunero	8,1	5,8	10,4	8,6	6,6	9,1
Astean behin gutxienez	11,7	10,2	13,1	14,3	9,9	10,8
Gutxiagotan	19,9	20,9	19,0	19,1	20,3	20,5
Inoiz ez	60,2	63,1	57,5	58,0	63,2	59,7
Guztira	100	100	100	100	100	100
PODCASTAK ENTZUN						
Egunero edo ia egunero	5,2	3,6	6,7	3,3	6,6	5,6
Astean behin gutxienez	9,8	5,8	13,5	7,3	11,5	10,4
Gutxiagotan	15,3	16,0	14,6	15,4	15,4	15,1
Inoiz ez	69,3	73,9	64,8	73,6	66,0	68,1
Ez du erantzun	0,5	0,6	0,4	0,3	0,4	0,7
Guztira	100	100	100	100	100	100
PORNOGRAFIA IKUSI						
Egunero edo ia egunero	4,5	0,8	8,0	3,1	6,1	4,2
Astean behin gutxienez	16,8	1,9	31,1	17,9	18,3	14,5
Gutxiagotan	16,2	7,9	24,1	13,1	19,0	16,5
Inoiz ez	62,5	89,3	36,7	65,8	56,7	64,5
Ez du erantzun	0,1	0,0	0,1	0,0	0,0	0,2
Guztira	100	100	100	100	100	100
LEHIAKETETAN (SARIKETETAN) EDO ZOZKETETAN PARTE HARTU						
Egunero edo ia egunero	1,6	1,9	1,4	1,4	1,3	2,0
Astean behin gutxienez	7,1	8,7	5,5	6,9	8,6	5,9
Gutxiagotan	33,8	35,2	32,3	33,2	34,8	33,3
Inoiz ez	57,5	54,0	60,8	58,5	55,3	58,5
Ez du erantzun	0,1	0,1	0,0	0,0	0,0	0,2
Guztira	100	100	100	100	100	100
ZURE BIKOTEKIDEAREKIN EDO LAGUNEKIN IZAERA SEXUALEKO EDUKI PERTSONALAK PARTEKATU						
Egunero edo ia egunero	0,9	0,4	1,3	1,3	1,1	0,2
Astean behin gutxienez	2,2	1,3	3,1	2,1	1,8	2,7
Gutxiagotan	10,4	8,8	12,1	6,5	11,6	13,1
Inoiz ez	86,3	89,5	83,3	90,1	85,2	83,8
Ez du erantzun	0,2	0,0	0,3	0,0	0,3	0,2
Guztira	100	100	100	100	100	100
KIROL-APUSTUAK EGIN						
Egunero edo ia egunero	0,7	0,0	1,5	1,0	0,5	0,7
Astean behin gutxienez	3,8	1,1	6,3	4,8	4,7	2,0
Gutxiagotan	10,4	3,0	17,6	9,6	12,0	9,7
Inoiz ez	85,1	96,0	74,6	84,6	82,8	87,5
Guztira	100	100	100	100	100	100
ON LINE JOKATU DAITEZKEEN DIRUA IRABAZTEKO JOKOETAN ARITU, HALA NOLA, POKERREAN EDO ANTZEKOETAN						
Egunero edo ia egunero	0,3	0,0	0,6	0,5	0,5	0,0
Astean behin gutxienez	1,0	0,0	1,9	0,7	1,2	1,1
Gutxiagotan	2,1	0,6	3,6	2,0	2,4	2,1
Inoiz ez	96,5	99,3	93,8	96,8	96,0	96,6
Ez du erantzun	0,1	0,1	0,0	0,0	0,0	0,2
Guztira	100	100	100	100	100	100
(n)	1512	756	756	504	504	504

Gazteen % 65,4k beste batzuekin konektatuta bideokontsola bidezko jokoetan ez dela inoiz aritzen dioten arren, bada beste % 12,7 egunero aritzen omen dena. Eta jarduera honi dagokionez, alde handiak daude gazte gizonezko eta emakumezkoen artean. Egundero bide-kontsolako jokoetan aritzeko emakume gazteen % 2,0 konektatzen da; mutilen artean, berriz, laurdena konektatzen da (% 23,0), eta erdia baino gutxiago dira inoiz horrela jokatu ez dutenak (% 42,5). Adin taldeen arteko analisiak erakusten du jarduera hau zabalduago dagoela 15-19 adin-tartean, eta urritu egiten dela adinean gora joan ahala.

Horrez gain, sexua eta adina konbinatzen baditugu, ikusiko dugu 15 eta 19 urte bitarteko gizonezkoak direla bideokontsola bidezko jokoetan gehien aritzen direnak: % 32,0k egunero, eta % 29,9k gutxienez astean behin, hots, 15 eta 19 urte bitarteko mutilen erdia baino gehiagorentzat ohikoa da joko horietan aritzeko konektatzea. Aldiz, nesken artean soilik % 4,4k dio egunero edo astean behin konektatzen dela jokatzeko. Gizonezkoek adinean gora egin ahala, urritu egiten da egunero edo astero konektatu eta jokoan aritzen direnen ehunekoa.

2.4. taula. Dirua irabazteko asmorik gabe beste pertsona batzuekin konektatuta bideokontsola bidezko jokoetan aritzeko maiztasuna, sexua eta adina konbinatuta (%)

Orain jarduera batzuen zerrenda irakurriko dizut. Esadazu, mesedez, zenbatero egiten duzun sare sozialetan edo Interneten horietako jarduera bakoitza: BESTE PERTSONA BATZUEKIN KONEKTATUTA PLAY STATION, XBOX EDO ANTZEKOETAKO JOKOETAN ARITU, DIRUA IRABAZTEKO ASMORIK GABE							
(%)	GUZTIRA	15-19 urte		20-24 urte		25-29 urte	
		Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Egunero edo ia egunero	12,7	1,6	32,0	2,8	20,3	1,7	16,8
Astean behin gutxienez	11,2	2,8	29,9	5,0	17,2	0,4	11,6
Gutxiagotan	10,6	7,8	13,9	4,1	15,6	6,1	15,7
Inoiz ez	65,4	87,7	24,2	88,1	46,9	91,9	56,0
Guztira	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1512	252	252	252	252	252	252

Internet edo sare sozialen bitartez albisteei buruzko iritzia eman edo iruzkinak egitea ere zabalduago dago gizonezko gazteen artean neska gazteengan baino. Izan ere, jarduera minoritarioa den arren (gazte guztien arteko % 8,1ek egunero egiten du, eta % 11,7k gutxienez astean behin), egunero dihardutenen artean gizonezkoek ia-ia bikoiztu egiten dute emakumeen ehunekoa (% 10,4 eta % 5,8, hurrenez hurren). Aldiz, adinean ez da alde nabarmenik hautematen jarduera honi dagokionez, baina ematen du 20-24 adin-tartea dela sare sozialetan albisteei buruzko iritzia emateko edo iruzkinak egiteko joera gutxien duena.

Prentsa digitala egunero irakurtzen dutela dioten gazteak dira gehien aritzen direnak albisteei buruzko iritzia ematen eta iruzkinak egiten (% 11,0). Prentsa digitala irakurtzeko maiztasuna urritu ahala, jaitsi egiten da, orobat, albisteak egunero iruzkintzen dituztenen ehunekoa. Horrenbestez, gutxienez astean behin prentsa irakurtzen dutenen arteko % 8,5ek dio egunero iruzkintzen duela albisteei; prentsa digitala maiztasun txikiagoarekin irakurtzen dutenen artean ehuneko hori % 4,3ra jaisten da, eta prentsa digitala inoiz irakurtzen ez dutenen artean % 3,7ra arte.

Podcastak entzutea ere gutxienek jarduerak da gazteen artean: gazteen % 5,2k egunero entzuten ditu eta % 9,8k gutxienez astean behin. Gizonezko gehiagok dio egunero podcastak entzuten dituela emakumeek baino (% 6,7 eta % 3,6, hurrenez hurren). Datu horiei gutxienez astean behin entzuten dituztela diotenak gehitzen badizkiegu, aldea are nabarmenagoa da: gizon gazteen % 20,2k dauka podcastak entzuteko ohitura, eta emakumeen % 9,4k. 20 eta 29 urte arteko pertsonen podcastak entzuteko zaletasun handiagoa dute 20 urtetik beherakoek baino (ikus 2.3 taula).

Eguneroko maiztasunaren ehunekoaren hurrenkeran, Interneten pornografia ikustea da hurrengo jarduera: gazteen % 4,5ek egunero egiten du. Baina ehuneko orokor horren atzean alde benetan handia dago gizonezko eta emakumezkoen artean: gizonezkoen % 8,0k aitortzen du egunero ikusten duela pornografia, eta % 31,1ek gutxienez astean behin. Aldiz, soilik emakumeen % 2,7k dio pornografia ikusten duela egunero edo astero.

Are gehiago, emakumeen % 89,3k dio ez duela Interneten inoiz pornografiarik ikusi; aitzitik, mutil gehienek ikusi izan dute, eta gutxiengo dira (% 36,7) inoiz halakorik Interneten ikusi ez dutenak.

Gizon eta emakumeen arteko aldeak esanguratsuak dira hiru adin taldeetan. Talde guztietan esaten du mutilen gehiengoak pornografia ikusten duela, maiztasun handiago edo txikiagoan, baina emakumeen artean gutxiengoak ikusten du halakorik. Gainera, adin taldeen arabera analisiak erakusten du pornografiaren kontsumorik handiena (maiztasuna edozein delarik), 20 eta 24 urte artean gertatzen dela, berdin gizonezko eta emakumezkoen artean.

2.5.taula. Gazteek Interneten edo sare sozialetan pornografia ikustearen maiztasuna, sexua eta adina konbinatuta (%)

Orain jarduera batzuen zerrenda irakurriko dizut. Esadazu, mesedez, zenbatero egiten duzun sare sozialetan edo Interneten horietako jarduera bakoitza: PORNOGRAFIA IKUSI							
(%)	GUZTIRA	15-19 urte		20-24 urte		25-29 urte	
		Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Egunero edo ia egunero	4,5	0,0	6,1	1,1	10,9	1,3	7,2
Astean behin gutxienez	16,8	1,4	33,3	3,0	32,9	1,6	27,4
Gutxiagotan	16,2	4,7	21,0	11,9	25,8	7,4	25,6
Inoiz ez	62,5	94,0	39,7	84,0	30,4	89,7	39,4
Ez du erantzun	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,4
Guztira	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1512	252	252	252	252	252	252

Lehiaketetan edo zozketetan parte hartzeari dagokionez, gazteen % 1,6k egunero parte hartzen duela dio, eta % 7,1ek gutxienez astean behin. Emakumeek gizonezkoek baino zertxobait gehiago parte hartzen dute, baina aldeak eskasak dira: % 10,6 eta % 6,9, egunero eta astero aritzen direnak batuta. Adinaren arabera ez da apenas alderik.

Bestalde, % 1etik beherakoa da bikotekidearekin edo lagunekin egunero izaera sexualeko eduki pertsonalak partekatzen dituztenen ehunekoa, zehazki % 0,9koa. Horrez gain, % 2,2k gutxienez astean behin partekatzen ditu, eta % 10,4k maiztasun txikiagoarekin. Izaera sexualeko eduki pertsonalak konpartitzen dituztenen artean gehiago dira gizon gazteak emakumeak baino, dela egunero, dela astean behin, dela maiztasun txikiagoarekin. Sexua eta adina konbinatuz gero, ikusiko dugu, alabaina, gizonezkoen eta emakumeen arteko alde horiek esanguratsuak direla soilik 15 eta 19 urte bitartekoen artean.

2.6.taula. Internet edo sare sozialen bitartez bikotekidearekin edo lagunekin izaera sexualeko eduki pertsonalak partekatzearen maiztasuna, sexua eta adina konbinatuta (%)

Orain jarduera batzuen zerrenda irakurriko dizut. Esadazu, mesedez, zenbatero egiten duzun sare sozialetan edo Interneten horietako jarduera bakoitza: ZURE BIKOTEKIDEAREKIN EDO LAGUNEKIN IZAERA SEXUALEKO EDUKI PERTSONALAK PARTEKATU							
(%)	GUZTIRA	15-19 urte		20-24 urte		25-29 urte	
		Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Egunero edo ia egunero	0,9	0,2	2,3	1,0	1,2	0,0	0,4
Astean behin gutxienez	2,2	0,7	3,5	2,0	1,5	1,4	4,1
Gutxiagotan	10,4	3,3	9,5	10,9	12,4	11,9	14,3
Inoiz ez	86,3	95,9	84,8	86,1	84,4	86,8	80,9
Ez du erantzun	0,2	0,0	0,0	0,0	0,5	0,0	0,4
Guztira	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1512	252	252	252	252	252	252

Gazteen % 0,7k egunero egiten du kirol-apusturik, % 3,8k gutxienez astean behin eta % 10,4k maiztasun txikiagoarekin. Gazteen artean gehiago dira kirol-apustuak egiten dituzten gizonetako emakumeak baino, berdin egunero, astean behin zein maiztasun txikiagoarekin. Kirol-apustuak ohikoagoak dira, halaber, 25 urtetik beherakoen artean, hortik gorakoen artean baino.

Sexua eta adina konbinatuz gero, adin-tarte bakoitzeko mutil eta nesken artean alde esanguratsuak daudela ikusiko dugu, bai eta 25 urtetik gorako eta beherako gizonetako artean ere. Izan ere, Internet bidez egunero edo astero kirol-apusturik egiten duten gizonetako errepertatuz gero, ikusiko dugu 15-19 adin-tartekoak % 10,2 eta 20-24 tartekoak % 8,7 direla, baina, gero, 25-29 adin taldean, ehunekoa % 4,5era erortzen da.

2.7.taula. Gazteek Internet edo sare sozialen bidez kirol-apustuak egitearen maiztasuna, sexua eta adina konbinatuta (%)

Orain jarduera batzuen zerrenda irakurriko dizut. Esadazu, mesedez, zenbatero egiten duzun sare sozialetan edo Interneten horietako jarduera bakoitza: KIROL-APUSTUAK EGIN							
(%)	GUZTIRA	15-19 urte		20-24 urte		25-29 urte	
		Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Egunero edo ia egunero	0,7	0,0	1,9	0,0	0,9	0,0	1,5
Astean behin gutxienez	3,8	0,9	8,3	1,3	7,8	1,0	3,0
Gutxiagotan	10,4	2,6	16,2	4,4	19,4	2,0	17,4
Inoiz ez	85,1	96,5	73,5	94,3	71,9	96,9	78,2
Guztira	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1512	252	252	252	252	252	252

Azkenik, dirua irabazteko asmoz pokerrean edo online-jokoetan aritzea ez da batere jarduera usua. Gazteen % 0,3k jokatzen du egunero dirua irabazteko asmoz, % 1,0k gutxienez astean behin eta % 2,1k maiztasun txikiagoarekin; guztira, gazteen % 3,4k jokatzen du online noizbait dirua irabazteko asmoz. Zifrak benetan urriak direnez gero, modu bateratuan aztertuko ditugu egunero, astero eta maiztasun txikiagoarekin jokoan aritzen direla diotenak. Kategoria horien baturak erakusten digu gizonetako emakumeak baino gehiago jokatzen dutela dirua irabazteko asmoz (% 6,1 eta % 0,6, hurrenez hurren). Adinaren arabera ez da alde esanguratsurik hautematen (ikusi 2.3 taula).

2.2. Youtuber, gamer edota influencerren jarraipena

Gazteen erdiak (% 52,4k) youtuber, gamer edo influencerren bati jarraitzen ohi diote. % 8,7k dio lehen jarraitu izan ziola halakoren bati, baina dagoeneko ezetz. Eta % 38,7k dio ez dela inoiz halako inoren jarraitzaile izan.

15 eta 19 urte bitartekoen artean daude youtuber, gamer edo influencerren baten jarraitzaile gehien, dela gaur egun direnak (% 67,4), dela iraganean izan direnak (% 13,4). Adinarekin gora egin ahala urritu egiten dira ehuneko horiek: 25 eta 29 urte artekoen gehiengoak dio inoiz ez diela jarraitu youtuber, gamer edo influencerrei (% 53,9k), eta 15-19 urte artekoen artean laurdenak baino gutxiagok (% 18,9) dio gauza bera.

Apenas dago alderik gizonezko eta emakumezko gazteen artean, norbaiten jarraitzaile izateari dagokionez, nahiz eta segur aski alderik dagoen nori jarraitzen zaion begiratzuz gero.

2.8.taula. Youtuber, gamer edota influencerren jarraipena, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)

Zuk jarraitzen ohi duzu youtuber, gamer edota influencerren bat?						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Bai	52,4	54,0	50,8	67,4	48,5	41,9
Orain ez baina lehen bai	8,7	7,8	9,6	13,4	9,0	4,1
Ez, inoiz ez	38,7	38,1	39,4	18,9	42,3	53,9
Ez du erantzun	0,1	0,1	0,2	0,3	0,2	0,0
Guztira	100	100	100	100	100	100
(n)	1512	756	756	504	504	504

Baina sexua eta adina konbinatzen baditugu, ikusiko dugu 25 eta 29 urte bitartekoen artean badela alde esanguratsurik sexuaren arabera, eta youtuber, gamer edo influencerrei jarraitzen dieten emakumeen ehunekoa gizonezkoena baino dezente handiagoa dela (% 46,8 eta % 37,1, hurrenez hurren).

Gainera, youtuber, gamer edo influencerren bati jarraitzeko ohitura dutenek gaintitu egiten dute Youtube eta Instagramera egunero konektatzen direnen batezbesteko orokorra (% 82,3 eta % 84,0, hurrenez hurren); batezbestekoak baino gehiago lehenesten dituzte bi sare sozial horiek bakar bat hautatu beharreko kasuan (% 59,1 Instagramen alde, eta % 17,1 Youtuberaren alde); gazteen batezbestekoak baino gehiago ikusten dituzten egunero bideo edo tutorialak (% 65,8); eta batezbestekoa baino gehiago (% 18,2) aritzen dira, halaber, dirua irabazteko asmorik gabe beste pertsona batzuekin konektatuta bideokontsola bidezko jokoetan.

Eta hiru adin taldeetan errepikatzen dira gaur egun *youtuber, gamer edo influencerren* bati jarraitzen dioten jorera horiek (Youtube eta Instagram batezbesteko orokorrak baino gehiago lehenestea eta erabiltzea, egunero bideo edo tutorial gehiago ikustea, eta gehiago aritzea beste pertsona batzuekin konektatuta bideokontsola bidezko jokoetan).

2.3. Blog pertsonalak izatea

Gazteen % 3,5ek badu blog pertsonalen bat. % 5,9k dio izan zuela blogik, baina dagoeneko ez. Eta gazteen gehiengoak (% 90,5) dio ez duela inoiz blog pertsonalik izan.

Gaur egun blogen bat dutenen ehunekoa altuagoa da 20 eta 29 urte bitartekoen artean, 20 urtetik beherakoek artean baino. Inoiz blog pertsonalen bat izan arren gaur egun ez dutenen ehunekoak ere gora egiten du adinarekin batera. Horrenbestez, 25 eta 29 urte bitartekoen % 12,7k badu edo izan du inoiz blog pertsonalik; 15 eta 19 urte bitartekoen artean, aldiz, zifra % 5,6koa da.

Gaur egun blog pertsonalen bat duten emakume gazteen ehunekoak gizonezkoena bikoizten duen arren (% 4,7 eta % 2,3, hurrenez hurren), alde hori ez da esanguratsua, eta oso minoritarioak dira edonola ere.

2.9.taula. Blog pertsonalak izatea, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)

Zuk baduzu blog pertsonal bat?						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Bai	3,5	4,7	2,3	1,8	4,5	4,1
Orain ez baina lehen bai	5,9	5,9	5,8	3,8	4,9	8,6
Ez, inoiz ez	90,5	89,3	91,8	94,3	90,6	87,1
Ez du erantzun	0,1	0,1	0,1	0,1	0,0	0,2
Guztira	100	100	100	100	100	100
(n)	1512	756	756	504	504	504

Bestalde, ahalik eta kide gehien edukitzeko asmoz gaur egun blogik dutenen eta inoiz izan dutenen kopuruak batuz gero, ikusten da pertsona horiek askoz gehiago jotzen duela egunero edukiak argitaratzera (% 20,8) batezbestekoak baino (% 10,5).

2.4. Argitaratutako edukien balorazioaren kontsulta

Lau gaztetik batek (% 25,1) beti begiratzen du argitaratzen dituen edukiei emandako *like* edo gogoko kopurua, edo izandako birbidalketa edo iruzkin kopurua. % 44,3k dio batzuetan kontsultatzen duela informazio hori, eta % 30,3k ez dituela inoiz kontsultatzen edo ez duela inoiz edukirik argitaratzen.

Emakumeek gizonezkoek baino joera handiagoa dute begiratzeko zenbat like eman zaizkien beren edukiei edo zenbat birbidalketa edo iruzkin egin diren: emakumeen % 27,7k begiratzen du halakoa beti, eta % 49,1ek batzuetan. 25 urtetik beherakoek ere 25-29 adin-tartekoek baino gehiago begiratzen dituzte beti edo batzuetan.

2.10. taula. Argitaratutako edukien balorazioaren kontsulta, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)

Zuk begiratzen duzu igoten dituzun edukiek izaten duten "like" edo gogoko kopurua, edota izaten dituzten birbidalketak edo iruzkinak? Zenbatero? Beti, batzuetan edo inoiz ez?						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Beti	25,1	27,7	22,7	24,4	29,1	22,3
Batzuetan	44,3	49,1	39,8	50,2	44,1	39,0
Inoiz ez edo ez du edukirik zintzilikatzen	30,3	23,0	37,2	25,0	26,3	38,7
Ez du erantzun	0,3	0,2	0,3	0,4	0,5	0,0
Guztira	100	100	100	100	100	100
(n)	1512	756	756	504	504	504

Sexuaren eta adinaren konbinazioan islatzen da gizonezko eta emakumezkoen arteko aldeak esanguratsuak direla soilik 20 urtetik aurrera. Bestalde, gizonezkoen artean alde nabarmenenak 25 urtetik gorako eta beherakoen artean gertatzen dira. Emakumeengan txikiagoak dira adin horretatik gora eta beherakoen arteko aldeak.

2.11. taula. Argitaratutako edukien balorazioaren kontsulta, sexua eta adina konbinatuta (%)

Zuk begiratzen duzu igoten dituzun edukiek izaten duten "like" edo gogoko kopurua, edota izaten dituzten birbidalketak edo iruzkinak? Zenbatero? Beti, batzuetan edo inoiz ez?						
(%)	15-19 urte		20-24 urte		25-29 urte	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Beti	25,4	23,5	32,3	26,0	25,6	18,9
Batzuetan	53,3	47,4	49,3	39,2	45,1	33,0
Inoiz ez edo ez du edukirik zintzilikatzen	21,1	28,6	18,0	34,3	29,3	48,1
Ez du erantzun	0,2	0,5	0,4	0,5	0,0	0,0
Guztira	100	100	100	100	100	100
(n)	252	252	252	252	252	252


Gainera, eta espero izatekoa zen bezala, edukiak sarritan (egunero edo gutxienez astean behin) argitaratzen dituzten gazteek batezbestekoak baino gehiago kontsultatzen dituzte eduki horiek eragindako erantzunak (% 35,1ek beti kontsultatzen ditu, eta % 47,2k batzuetan), eta gaur egun edo iraganean blogen bat duten edo izan dutenek ere batezbestekoak baino gehiago kontsultatzen dituzte (% 32,4k beti, eta % 47,0k batzuetan).

2.5. Ziberaktibismoa

“Ziberaktibismo” terminoarekin Interneten edo sare sozialetan sustatzen den aktibismo politiko edo soziala adierazten da. Euskadiko gazteen % 28,8k dio azken urtean abiarazi edo sustatu duela Interneten edo sare sozialetan eztabaida edo salaketa sozialen bat, testu bat idatziaz edo irudi edo bideoen bat zabalduaz.

Gehiago dira azken urtean ziberaktibismoan aritu direla (goragoko definizioaren arabera) aitortzen duten emakume gazteak gizonezkoak baino: emakumeen % 31,9k eta gizonezkoen % 25,8k. Adinaren arabera, 20 eta 29 urte bitartekoek 15 eta 19 bitartekoek baino eztabaida edo salaketa gehiago sustatu omen dituzte sare sozialetan.

2.1.grafikoa. Ziberaktibismoa, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)



Kolektibo aktiboena 20 eta 24 urte bitarteko emakumeena da; izan ere, horien arteko % 37,6k dio abiarazi edo sustatu duela eztabaida edo salaketa sozialen bat sare sozialetan; ondoren dator 25 eta 29 urte bitarteko emakumeena, % 34,1ekin.

Bestalde, blog pertsonalen bat duten edo izan dutenen arteko ia erdiak (% 47,7k) dio eztabaida edo salaketaren bat abiarazi edo sustatu izan duela sare sozialen bidez.

Zenbat eta handiago edukiak sare sozialetan argitaratzeko maiztasuna, orduan eta handiago da, berebat, azken urtean ziberaktibismoan aritu direla dioten ehunekoa.

2.12.taula. Ziberaktibismoa, sare sozialetan edukiak argitaratzeko maiztasunaren eta blog pertsonala inoiz izatearen arabera (%)

Azken urtean Interneten, sare sozialen edota WhatsApp moduko aplikazio mugikorren bidez sortu, bultzatu edo eragin duzu eztabaida edo salaketa sozialik testu bat idatziz zein irudiak edo bideoak bidaliz?						
(%)	Guztira	Edukiak argitaratzeko maiztasuna			Blog pertsonalak	
		Egunero edo astean behin gutxienez	Gutxiagotan	Inoiz ez	Bai (orain zein lehen)	Ez (inoiz ez)
Bai	28,8	36,5	25,9	16,5	47,7	26,8
Ez	70,6	63,1	73,3	82,6	51,5	72,6
Ez du erantzun	0,6	0,4	0,8	1,0	0,8	0,6
Guztira	100	100	100	100	100	100
(n)	1512	613	666	233	150	1360

Ziberaktibismoan dabiltzan gazteek gazteriaren batezbestekoak baino maila handiagoan darabiltzate Twitter eta Facebook.

2.13.taula. Twitter eta Facebook erabiltzeko maiztasuna, ziberaktibismoaren arabera (%)

Jarraian sare sozialen zerrenda bat irakurriko dizut eta nahiko nuke esatea zenbatero erabiltzen duzun horietako bakoitza			
(%)	Guztira	Ziberaktibismoa	
		Bai	Ez
Twitter			
Egunero edo ia egunero	17,7	22,3	15,7
Astean behin gutxienez	8,8	10,9	8,1
Gutxiagotan	11,2	12,7	10,5
Inoiz ez	62,2	54,1	65,7
Ez du erantzun	0,1	0,0	0,1
Facebook			
Egunero edo ia egunero	32,8	37,5	31,0
Astean behin gutxienez	13,2	16,0	12,0
Gutxiagotan	12,5	11,6	13,0
Inoiz ez	41,5	34,9	44,0
Guztira	100	100	100
(n)	1512	429	1073

Are gehiago, soilik sare sozial bakarra baliatu ahal izatera Twitterren alde egingo luketenen ehunekoa bikoitza da kolektibo horretan, azken urtean ziberaktibismoan aritu ez direnen aurrean (% 13,6 eta % 7,9, hurrenez hurren).

3.

PRIBATUTASUN- ETA SEGURTASUN-NEURRIAK SARE SOZIALETAN

Internet eta sare sozialen erabileraren inguruan gai bereziki garrantzitsua da gailuen segurtasuna (antibirus edo pasahitza erabiliz, igorle ezezagunak blokeatuz, etab.), baina baita norberaren eta besteren datu pertsonalen babesarena ere, hartara pribatutasuna bermatzeko eta zenbait arrisku ekiditeko: mehatxuak, iruzurrak, hackeatzea, ziberjazarpena, nortasun-ordezkapena eta beste batzuk.


Datu pertsonalen pribatutasuna bermatzeko neurrien artean honako hauek daude: informazio pribaturik ez ematea, aplikazioetan profilera nor sartu daitekeen onetsi zein ukatzeko pribatutasun-aukerak baliatzea, soilik lagunak edo pertsona ezagunak gehitzea, datu pertsonalak (NANa, banku-datuak, argazki pertsonalak, etab.) eman aurretik kontu handiz jokatzeta, bereziki babestu beharreko datuak igorri aurretik konexioa segurua dela egiaztatzea, datu pertsonalak babesteko neurriak ezagutzea, hirugarren pertsonen daturik haien baimenik gabe ez argitaratzea, etab.

Jarraian Euskadiko gazteek beren segurtasuna eta pribatutasuna bermatzeko neurri horiek betetzen ote dituzten aztertuko dugu, bai eta gurasoengandik sare sozialak egoki erabiltzeko irizpideak jaso ote dituzten ere.

3.1. Pribatutasuna bermatzeko neurriak hartzea


Gazteen arteko gehien-gehienek (% 87,6k) diote hartzen dutela neurriarik sare sozialetan pribatutasuna bermatzeko, halako moduan non soilik pertsona jakin batzuek ikusiko dituzten beren edukiak.

Emakume gazteen esanei erreparatuta, gizonetako gazteek baino gehiago hartzen dituzte horrelako neurriak (emakumeen % 91,8k eta gizonetako % 83,6k).

3.1.grafikoa. Pribatutasuna bermatzeko neurriak hartzea, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)

Adinean gora joan ahala areagotu egiten da pribatutasuna bermatzeko neurriren bat hartzen dutela dioten gizonezko eta emakumezkoen ehunekoen arteko aldea.

Eta, nahiz eta lehen begiratuan ez den adinaren arabera alde nabarmenik hautematen, sexua eta adin taldeak konbinatuta ikusiko dugu gizonezkoen artean 15-19 adin-tartekoak direla pribatutasun neurriak hartzen dituztela gehien diotenak, eta ehunekoa behera doa adinak gora egin ahala; emakumeen artean, aldiz, ez da alde esanguratsurik adinaren arabera.


3.2.grafikoa. Pribatutasuna bermatzeko neurriak hartzea, sexua eta adina konbinatuta (%)

Pentsa zitekeenaren kontra, bikotekidearekin edo lagunekin izaera sexualeko edukiak konpartitzen dituzten pertsonak ez dute pribatutasuna babesteko neurri gehiago hartzen, horrelako edukirik inoiz konpartitu ez dituztenekin alderatuta (% 89,0 eta % 87,5, hurrenez hurren).

3.2. Pasahitzak ondo gorderik babestea

Sare sozialetan aritzerakoan pribatutasun- eta segurtasun-neurri bat norberak eskusiboki erabiltzeko pasahitza edukia izatea da. Euskadiko gazteen % 14,1ek dio besteren bati eman izan diola inoiz bere pasahitza sare sozialen batean sartzeko.


3.3.grafikoa. Sare sozialetan sartzeko pasahitza inori eman izan dioten gazteak (%)



Auzi honi dagokionez, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen guztizkoan ez da alde nabarmenik ikusten gizon eta emakumeen artean. Eta adinaren arabera ere txikiak dira: beste norbaiti pasahitzaren berri eman izan dioten pertsonen ehunekoa % 12,1ekoa da 15-19 adin-tartean, eta % 16,5ekoa 25 eta 29 bitartekoan.

Sexua eta adin-tarteak konbinatuz gero, ikusiko dugu pasahitzak gehien konpartitzen dituen kolektiboa 25 eta 29 urte bitarteko gizonezkoena dela, zeinen artean % 19,6k pasahitza beste norbaiti eman izan dion. Izan ere, 25 eta 29 urte bitarteko gizonezkoak nabarmenki bereizten dira, nola adin bereko emakumeengandik, hala 25 urtetik beherako gizonezkoengandik ere.

3.4.grafikoa. Sare sozialetan sartzeko pasahitza inori eman izan dioten gazteak, sexua eta adina konbinatuta (%)




Sare sozialetan pribatutasun-neurririk hartzen ez dutela aitortzen dutenen artean pasahitza beste norbaiti eman diotela dioten ehuneko handiagoa dago pribatutasun-neurririk hartu izan dutela dioten artean baino (% 18,9 eta % 13,4, hurrenez hurren).

Bestalde, Interneteko ordainpeko edukietara (Netflix, HBO, Spotify, Amazon prime, Youtube prime, etab.) sartzetik dutenen artean, pasahitzak konpartitzen dituzten ehunekoa zertxobait altuagoa da (% 16,8) ordainpeko eduki horietan sartzetik ez dutenen artean baino (% 10,7).

3.3. Argazki eta bideoak argitaratzeko baimena eskatzea

Hirugarren pertsonen argazkiak haien baimenik gabe argitaratzeak pertsona horien pribatutasunerako eskubidea urratu dezake; hori dela eta, argazki edo bideoak argitaratu aurretik berorietan agertzen direnei baimena eskatzen dieten galdetu zaie gazteei. Hamar gaztetatik hiruk (% 30,6k) baieztatzen dute beti eskatzen dutela baimena, ehuneko pixka bat handixeagoak (% 33,8k) dio soilik batzuetan eskatzen duela, eta % 23,0k aitortzen du ez duela inoiz baimenik eskatzen. Beste % 12,4k dio ez duela argazki zein bideorik igotzen, eta gainerako % 0,2k ez du erantzuten.

3.5.grafikoa. Argitaratzen diren argazki eta bideoetan agertzen diren pertsonen argitaratzeko baimena eskatzea (%)



Emakume gazteek gizonetako baino gehiago eskatzen dute baimena: emakumeen % 36,5ek eta gizonen % 24,8k dio beti eskatzen duela. Are gehiago, gizonen artean gehixeago dira inoiz baimenik eskatzen ez dutenak (% 28,6) beti eskatzen dutenak baino (% 24,8).

15 eta 19 urte bitartekoak dira beti baimena eskatzen dutela gehien diotenak (% 37,3). Adina eta sexua konbinatuz gero, argazki edo bideoen bat igo aurretik beti baimena eskatzen dutela dioten artean 15 eta 19 urte bitarteko neskek nagusitzen dira (% 38,7), ondoren 15 eta 19 urte bitarteko mutilak datoz (% 36,1) eta gero 20 eta 24 urte bitarteko emakumeak (% 36,0) eta 25 eta 29 urte bitartekoak (% 35,2). 20 eta 29 urte bitarteko gizonen artean beti baimena eskatzen duten ehunekoa % 20tik behera dago.

Gainera, blog pertsonala izan duten edo gaur egun dutenak gehiago arduratzen dira argazki edo bideoen argitaratu aurretik baimena eskatzeaz (% 38,9k beti eskatzen du). Sare sozialetan beren pribatutasuna bermatzeko neurriak hartzen dituztenak ere gehiago kezkatzen dira beste pribatutasunaz: % 31,8k beti eskatzen dute baimena, inolako pribatutasun-neuririk hartzen ez duten arteko % 22,3aren aurrean.

3.1.taula. Argitaratzen diren argazki eta bideoetan agertzen diren pertsonen argitaratzeko baimena eskatzea, sexuaren, adin taldearen, blog pertsonala inoiz izatearen eta pribatutasun-neurriak hartzeko joeraren arabera (%)


Argitaratzen dituzun argazkietan edo bideoetan beste pertsona batzuk agertzen direnean baimena eskatzen diezu pertsona horiei igo baino lehen?										
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Blog pertsonalak		Pribatutasuna bermatzeko neurriak	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Bai (orain zein)	Ez (inoiz ez)	Bai	Ez
Beti	30,6	36,5	24,8	37,3	27,0	27,5	38,9	29,6	31,8	22,3
Batzuetan	33,8	38,9	29,0	35,3	40,4	26,6	30,6	34,2	35,4	23,6
Inoiz ez	23,0	17,1	28,6	19,1	21,9	27,5	22,4	23,1	22,2	29,0
Ez du argazkirik ezta bideorik zintzilikatzen	12,4	7,2	17,5	8,1	10,5	18,3	7,8	12,9	10,5	25,0
Ez du erantzun	0,2	0,2	0,1	0,2	0,2	0,1	0,4	0,1	0,2	0,0
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1512	756	756	504	504	504	150	1360	1326	179

3.4. Adiskide izateko eskaeren onarpenera murriztea

Beste pribatutasun- eta segurtasun-neurri bat pertsona ezezagunen adiskidetasun-eskaerarik ez onartzea da. Horregatik, jasotzen dituzten adiskidetasun-eskaera oro onartzen ote duten galdetu diegu gazteei. Erantzunek islatzen dute gazteen % 1,8k adiskidetasun-eskaera guztiak onartzen dituela, nahiz eta ez jakin eskatzailea nor den, eta % 24,8k onartzen dituela lagunen lagun direnen eskaerak, nahiz eta ez ezagutu; horrenbestez, gazteriaren laurdenak onartzen ditu pertsonalki ezagutzen ez dituzten pertsonen adiskidetasun-eskaerak.

Aldiz, gazte gehienek zuhurrago jokatzeko dute. % 61,9k ez du lagunen adiskidetasun-eskaerak baino onartzen, eta % 9,5ek batzuetan ezta adiskideenak ere. Gainerako % 2k ez du erantzun.

3.6.grafikoa. Adiskide izateko eskarien onarpenera (%)




Ezagutzen ez dituzten pertsonen adiskidetasun-eskaera gehiago onartzen dituzte gizonezko gazteek emakume gazteek baino. Eskaera guzti-guztiak onartzen dituztenen eta lagunen lagunak (nahiz eta ez ezagutu) onartzen dituztenenak batuta, gizonezkoen % 29,9k eta emakumeen % 23,2k pertsona ezezagunen adiskidetasun-eskaerak onartzen ditu.

15 eta 19 urte bitartekoak dira pertsonalki ezagutzen ez dituztenen adiskidetasun-gonbidapenak gehien onartzen dituztenak (% 42,6k), baina ehunekoak behera jotzen du adinarekin batera.

3.2.taula. Adiskide izateko eskarien onarpena, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)

Onartzen dituzu jasotzen dituzun adiskide izateko eskari guztiak?						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Denak onartzen dituzu, nahiz eta ez jakin nortzuk diren	1,8	0,2	3,4	3,3	1,1	1,1
Zure lagunak onartzen dituzu, nahiz eta ez ezagutu	24,8	23,0	26,5	39,3	22,9	12,9
Bakarrik zure lagunak onartzen dituzu	61,9	65,2	58,8	51,5	64,7	69,2
Batzuetan lagunak ere ez dituzu onartzen	9,5	10,4	8,6	5,3	9,5	13,4
Ez du erantzun	2,0	1,2	2,7	0,6	1,9	3,4
Guztira	100	100	100	100	100	100
(n)	1512	756	756	504	504	504

Sexua eta adina konbinatuz gero, ikusten dugu 20 urtetik beherako gizon zein emakumeak direla errazen onartzen dituztenak pertsonalki ezagutzen ez dituzten pertsonen adiskidetasun-eskaerak, % 40tik gora kasu bietan. Adinean gora egin ahala, urritu egiten da pertsonalki ezagutzen ez dituzten pertsonen adiskidetasun-eskaerak onartzen dituzten gizon zein emakumeen ehunekoak, baina 20 eta 24 urte bitarteko gizonenak bikoiztu egiten du adin bereko emakumeena.

3.7.grafikoa. Pertsonalki ezagutzen ez diren pertsonen adiskide izateko eskarien onarpena, sexua eta adina konbinatuta (%)


3.5. Sare sozialak zuzen erabiltzeko irizpideen azalpenak gurasoengandik jasotzea

Gazteak natibo digitalak direla esaten ohi da, jaio direnerako telefono mugikorrek eta Internet bazirelako, eta egunero baliatzen dituztelako teknologia horiek. Alabaina, adituek diotenez, "Pertsona horietako asko zurtz digitalak izan dira, eta dira; izan ere, teknologia horiek inguratuta egonda ere, ez dute helduen laguntzarik teknologia horiek arduraz erabiltzen ikasteko. Horren harira, helduek eskaini beharreko laguntza hori garrantzi handi-handikoa da teknologia horri ahalik eta probetxurik handiena ateratzeko eta eskuin-ezker aipatzen diren zenbait arrisku saihesteko"².

Inkesta honen bidez jasotako datuek erakusten digute gazteen % 43,2k jaso izan duela sare sozialak zuzen erabiltzeko irizpiderik gurasoen aldetik: % 10,8k askotan, eta % 32,4k noizbait. Baina gehiago dira (% 56,6) gurasoengandik irizpiderik batere jaso ez dutenak.

Sare sozialak zuzen erabiltzeko irizpide edo azalpen gehiago jaso dituzte emakume gazteek gizon gazteek baino (% 47,2 eta % 39,4, hurrenez hurren, ehuneko horietan batu egin direlarik azalpenak askotan eta noizbait jaso dutela diotenak).

20 urtetik beherako pertsona gehienei eman izan diete beren gurasoek sare sozialak zuzen erabiltzeko irizpiderik (% 65,3); alderantziz, 25 eta 29 urte bitartean dauden laurdenak baino gutxiagok (% 22,2) jaso izan du halako irizpiderik aita edo amarengandik.


3.3.1. taula. Gurasoengandik sare sozialak zuzen erabiltzeko azalpen edo irizpiderik jaso duten gazteak, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)

Zure aitak edo zure amak sare sozialak zuzen erabiltzeko azalpenik edo jarraibiderik eman dizute?						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Askotan	10,8	13,4	8,3	18,5	9,6	4,7
Noizbait	32,4	33,8	31,1	46,8	34,3	17,5
Inoiz ez	56,6	52,7	60,3	34,4	56,0	77,7
Ez du erantzun	0,2	0,1	0,3	0,3	0,2	0,2
Guztira	100	100	100	100	100	100
(n)	1512	756	756	504	504	504

Sexuaren eta adinaren analisi konbinatuak erakusten du 15 eta 19 urte bitarteko emakumeak direla azalpen eta irizpide gehien jaso dituztenak (% 69,0k askotan edo noizbait), eta 25 eta 29 urte bitarteko gizonezkoak gutxien (% 18,9). Adin talde guztietan emakumeek gizonek baino gehiago diote etxean sare sozialak erabiltzeko irizpideak jaso dituztela.

² Naiara Pérez de Villarreal (Interneten eta tresna digitaletan espezializatutako aholkularia) Gazteen Euskal Behatokia eman eta 2018ko urriko Gaztedoc buletin elektronikoan argitaratutako elkarriketa [online] Ob. cit.

3.8.grafikoa. Gurasoengandik sare sozialak zuzen erabiltzeko azalpen edo irizpiderik jaso duten gazteak, sexua eta adina konbinatuta (%)



Gurasoengandik sare sozialak zuzen erabiltzeko irizpide edo azalpenik jaso izan duten gazteek batere irizpiderik jaso ez dutenek baino gehiago adierazten dute sare sozialetan beren pribatutasuna bermatzeko neurriak hartzen dituztela (% 91,4 eta % 85, hurrenez hurren), bai eta beti eskatzen dietela baimena argazki edo bideoak argitaratu aurretik horietan agertzen direnei (irizpiderik jaso dutenen arteko % 36,1ek eta jaso ez dutenen arteko % 26,5ek jotkatzen du horrela). Alabaina, ez da alderik pertsonalki ezagutzen ez dituzten pertsonen adiskidetasun-eskaerak onartzeari edo beste norbaiti sare sozialetan sartzeko pasahitza emateari dagokionez.

3.6. Sare sozialak zuzen erabiltzeko irizpideen azalpenak gurasoei ematea

Gazteei buruz “natibo digitalak” direla esaten den bitartean, Internet eta gailu mugikorren mundura heldutan sartu direnengatik “migratzaile digital” edo “etorkin digitalak” direla esan ohi da. Sarritan, pertsona horiek gabezia handiak dituzte, ez soilik sare sozialak erabiltzerakoan hartu beharreko segurtasun- eta pribatutasun-neurrien alorrean, baita sareetan sartzeko gailuen ezaugarriei eta sareen funtzionalitateei buruz ere.

Sarritan 15 eta 29 urte bitartekoen gurasoen belaunaldiek dituzten muga horien aurrean, egoki da gazteei galdetzea zenbateraino ematen dizkieten gurasoei sare sozialak zuzen erabiltzeko irizpideak.

Gazte gehienek diote eman izan dietela gurasoei sare sozialen erabilera zuzenari buruzko azalpenik: % 22,9k askotan eta % 53,7k noizbait.

Emakumeek gizonezkoek baino gehiago eman izan dizkiete gurasoei halakoa azalpenak. Adinak, ordea, ez dakar alde handirik.

3.4. taula. Gurasoei sare sozialak zuzen erabiltzeko azalpen edo irizpideak eman dizkieten gazteak, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)

Eta zuk azaldu dizkiezu aitari edota amari sare sozialak zuzen erabiltzeari buruzko gauzak?						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Askotan	22,9	26,3	19,6	19,6	24,2	24,7
Noizbait	53,7	53,9	53,5	56,2	53,8	51,3
Inoiz ez	23,2	19,6	26,7	24,0	21,7	24,0
Ez du erantzun	0,2	0,2	0,2	0,3	0,3	0,0
Guztira	100	100	100	100	100	100
(n)	1512	756	756	504	504	504

Gurasoei azalpenak askotan eman dizkietela dioten artean 20 eta 24 urte bitarteko emakumeen kolektiboa gailentzen da, % 30,3k esaten baitu halakorik.

Bestalde, konparatzen badugu gurasoengandik sare sozialen erabilera zuzenari buruz aholku jaso duten eta horretan gurasoei lagundu dieten gazteen ehunekoak, ikusiko dugu gehiago direla gurasoei azalpenak eman dizkietenak (% 76,6k, askotan eta noizbait egin izan dutela dioten ehunekoak batuta), gurasoengandik halakorik jaso dutela diotenak baino (% 43,2).

Gazteak lau multzotan bana daitezke, gurasoekin sare sozialen erabilera zuzenari buruzko azalpenak partekatu dituzten kontuan hartuta:


- Multzorik handienean (gazteen % 40,5) gurasoengandik sare sozialak zuzen erabiltzeko azalpen edo irizpiderik jaso ez, baina gurasoei beraiek aholku eman dietenak (askotan edo noizbait) daude.
- Hurrengo multzoan gazteen % 36,0 dago: horiek gurasoengandik jaso dituzte sare sozialak zuzen erabiltzeko azalpenak, baina eman ere, eman izan dizkiete halakoak gurasoei.
- Hirugarren multzoan daude inoiz halako azalpenik gurasoekin trukatu ez dituzten gazteak: ez haiengandik azalpenik jaso, ezta haiei eman ere. Gazteen % 16,0k osatzen du talde hori.
- Azkenik, gazteen arteko % 7,0k dio jaso izan duela gurasoengandik azalpen eta irizpiderik, baina beraiek ez dietela gurasoei inoiz sare sozialei buruz ezer azaldu.

Sare sozialak zuzen erabiltzeko irizpiderik gurasoengandik jaso eta/edo irizpideak gurasoei eman aldagaiaren ikuspegitik aztertzen badugu gizon eta emakume gazteen eta adin talde bakoitzaren banaketa, gurasoengandik aholku jasotzearekin batera haiei ere aholku eman dieten emakume gazte gehiago dagoela mutil baino (% 40,0 eta % 32,3, hurrenez hurren), eta, alderantziz, gurasoengandik azalpenik jaso ez eta gurasoei azalpenik eman ez dizkieten mutil gehiago dago (gizonezkoen % 19,4 eta emakumeen % 12,5).

Adinak aldeak ezartzen ditu: izan ere, adinean gora egin ahala, orduan eta txikiagoak dira ehunekoak, bai gurasoengandik azalpenak jasotzearekin batera haiei ere eman dizkietenena (elkarrekiko aholkua), bai gurasoengandik aholkuak jaso dutenena, haiek eman ez badute ere.

Halaber, adinarekin batera ere areagotu egiten da gurasoengandik aholkurik jaso ez baina haiei eman dietenen ehunekoa, bai eta aholkurik ez jaso, ez eman ez dutenena ere.

3.9.grafikoa. Gazteen banaketa, sare sozialak zuzen erabiltzeko irizpiderik gurasoengandik jaso eta/edo gurasoei eman aldagaiei jarraikiz, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)




Adin talde guztietan emakumeen kolektiboa nagusitzen da gurasoekin sare sozialak zuzen erabiltzeko irizpideak trukatu (hots, haiengandik jaso bai, eta haiei eman ere bai) dituztenen artean.

Edonola ere, adinean gora egin hala, urritu egiten da gurasoekin sare sozialen erabilera zuzenari buruzko azalpenak trukatu dituzten gizon zein emakumeen kopurua.

Horrenbestez, 15 eta 19 urte bitarteko emakumeen % 55,9k gurasoengandik aholku jaso eta haiei aholku eman dien bitartean, 25 eta 29 urteko mutilen artean soilik % 17,2 dago egoera berean.

3.10.grafikoa. Gazteen banaketa, sare sozialak zuzen erabiltzeko irizpiderik gurasoengandik jaso eta/edo gurasoei eman aldagaiei jarraikiz, sexua eta adina konbinatuta (%)



4.

EGOERA UMILIAGARRIAK EDO JAZARPENEZKOAK SARE SOZIALETAN

Beste pertsona batzuekin harremanetan jartzeko beste edozein bide bezala, sare sozialek ere egoera desatseginak (umiliazioak, nortasun-ordezpena, jazarpena, etab.) jasateko arriskua eragiten dute. Gainera, arrisku hori areagotu egin dezake datu pertsonalen segurtasun- eta pribatutasun-neurririk hartzen ez bada edo neurriak aski mugatuak badira, aurreko atalean ikusi bezala; horrenbestez, jarraian aztertuko da zenbateraino dauden zabaldua halako egoerak Euskadiko gazteen artean, bai eta pribatutasun-defizitek sareetan esperientzia desatseginak bizi ahal izateko aukera areagotzen duten.

4.1. WhatsApp taldeetatik baztertzea

WhatsApp hain zabaldua dagoenez (gazteen % 98,2k egunero erabiltzen du berehalako mezularitzako zerbitzu hori), egoki da, sare sozialetan gerta daitezkeen gaitzespen- edo jazarpen-egoerak aztertzeko, jakitea zenbat gazte izan diren WhatsAppeko taldeetatik baztertuak.

Hiru gaztetik batek (% 33,7k) dio gutxienez behin baztertu izan dutela WhatsAppeko talderen batetik; alabaina, soilik % 1,6ri gertatu zaio halakorik askotan. Talde horretako gehienek (% 32,1ek) diote gertatu izan zaiela halakorik inoiz. Alabaina, gazte gehienek (% 66,2k) diote ez zaiela inoiz gertatu.


Gizonezkoek emakumeek baino gehiago diote gutxienez behin WhatsAppeko talderen batetik baztertu izan dituztela (% 39 eta % 28,1, hurrenez hurren). Kolektiborik gazteenean (15-19 urte) aitortzen da gehien WhatsAppeko talderen batetik baztertua izatea (% 48,0 gutxienez behin), eta ehunekoa txikitzen doa adinean gora egin ahala.

4.1.taula. WhatsApp taldeetatik baztertutako gazteak, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)

Zu inoiz izan zara baztertua WhatsAppeko talde batetik? Bota egin zaituzte horrelako talderen batetik?						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Askotan	1,6	0,8	2,3	1,9	1,7	1,1
Noizbait	32,1	27,3	36,8	46,1	29,6	21,5
Inoiz ez	66,2	71,7	60,9	51,9	68,7	77,2
Ez du erantzun	0,1	0,2	0,1	0,1	0,0	0,2
Guztira	100	100	100	100	100	100
(n)	1512	756	756	504	504	504

Adin talde guztietan nagusitzen zaizkie mutilak neskei gutxienez behin WhatsAppeko talderen batetik baztertu izan dutela dioten artean.

4.1.grafikoa. WhatsApp taldeetatik baztertutako gazteak, sexua eta adina konbinatuta (%)



4.2. Nortasun-ordezpena

Gazteen % 8,7k dio gutxienez behin ordeztu izan dutela bere nortasuna sare sozialetan. % 0,1i askotan gertatu zaio hori, eta % 8,6ri noizbait.

Nortasun-ordezpena zertxobait ohikoagoa da emakumeen artean gizonezkoengan baino (% 10,1 eta % 7,3, hurrenez hurren), eta igo egiten da, pixka bat bada ere, adinarekin batera: 15-19 adin-tarteko kolektiboan % 7,3koa bada egoera horretan gutxienez behin egon direnen ehunekoa, 25-29 adin taldean zifra hori % 10,4ra iristen da.


Sare sozialetan nortasun-ordezpena pairatu dutenen ehunekoa handiagoa da pasahitza beste pertsona batzuekin konpartitu dutenen artean (% 14,8) inoiz hori egin ez dutenen artean baino (% 7,6).

4.2. taula. Sare sozialetan nortasun-ordezpena pairatu duten gazteak, sexuaren, adin taldearen eta beste norbaiti pasahitza ematearen aldagaien arabera (%)

Eta, datuak faltsututa, zure ordez aritu dira inoiz sare sozialen batean zure baimenik gabe?								
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak			Beren pasahitza eman diete beste pertsonari	
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Bai	Ez
Askotan	0,1	0,2	0,0	0,0	0,3	0,1	0,3	0,1
Noizbait	8,6	9,9	7,3	7,3	8,0	10,3	14,5	7,5
Inoiz ez	90,9	89,7	92,2	92,3	91,5	89,2	84,4	92,1
Ez du erantzun	0,4	0,2	0,5	0,4	0,3	0,4	0,9	0,3
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1512	756	756	504	504	504	211	1295

Izan ere, beste norbaiti pasahitza ematearen aldagaia sexuarekin eta adinarekin konbinatzen badugu, ikusten da nortasun-ordezpena pasahitza norbaiti eman dioten artean nagusitzen dela, gordean izan dutenen aurrean, berdin hiru adin taldeetan, eta berdin bi sexuetan.

4.2. grafikoa. Sare sozialetan gutxienez behin nortasun-ordezpena pairatu duten gazteak, sexuaren, adin taldearen eta beste norbaiti pasahitza ematearen aldagaiak konbinatuta (%)



4.3 Baimenik gabe argazki edo bideo iraingarriak zabaltzea

Euskadiko gazteen % 7,2k dio gutxienez behin norbaitek zabaltu izan duela sare sozialetan, bere baimenik gabe, bera agertzen den argazki edo bideo konprometitu, iraingarri edo lotsagarriren bat. Kasuen % 0,1ean askotan gertatu da halakorik, eta % 7,1ean noizbait.

Hemen ez da alde esanguratsurik nabaritzen gizon eta emakumeen artean, ez eta adinaren arabera ere.

4.3.taula. Bere argazki edo bideo konprometitu, iraingarri edo lotsagarriren bat sare sozialetan baimenik gabe zabalduta ikusi duten gazteak, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)

Eta igo dute Internetera edo zabaltu dute sare sozialetan, zure baimenik gabe, konprometitua, iraingarria edo lotsagarria den zure argazki edo bideorik?						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Askotan	0,1	0,0	0,1	0,0	0,0	0,2
Noizbait	7,1	6,0	8,3	7,1	6,9	7,4
Inoiz ez	92,6	94,0	91,2	92,6	92,8	92,4
Ez du erantzun	0,2	0,0	0,3	0,3	0,3	0,0
Guztira	100	100	100	100	100	100
(n)	1512	756	756	504	504	504

Baina bai ikusten da alderik sare sozialetan sartzeko pasahitza beste norbaiti eman edo ez aldagaiaren arabera: pasahitza eman dutenen artean bikoiztu egiten da bere argazki edo bideo konprometitu, iraingarri edo lotsagarriren bat sare sozialetan baimenik gabe zabalduta ikusi duten gazteen ehunekoa.

Bestalde, nortasun-ordezpena nozitu dutenek neurri handiagoan bizi izan dute beren irudi (argazki zein bideo) konprometitu, iraingarri edo lotsagarriren bat sare sozialetan baimenik gabe zabalduta ikustea, nortasun-ordezpena jasan ez dutenek baino.

4.4.1. taula. Bere argazki edo bideo konprometitu, iraingarri edo lotsagarriren bat sare sozialetan baimenik gabe zabaldua ikusi duten gazteak, aintzat hartuta beste norbaiti pasahitza ematearen eta sare sozialetan nortasun-ordezpena nozitzearen aldagaiak (%)

Eta igo dute Internetera edo zabaldu dute sare sozialetan, zure baimenik gabe, konprometitua, iraingarria edo lotsagarria den zure argazki edo bideorik?					
(%)	Guztira	Beren pasahitza eman diete beste pertsoneri		Datuak faltsututa, beraien ordez aritu dira sare sozialetan	
		Bai	Ez	Bai	Ez
Askotan	0,1	0,5	0,0	0,0	0,1
Noizbait	7,1	12,6	6,3	12,6	6,7
Inoiz ez	92,6	86,3	93,6	87,4	93,2
Ez du erantzun	0,2	0,6	0,1	0,0	0,1
Guztira	100	100	100	100	100
(n)	1512	211	1295	135	1371

4.4 Jazarpenaren bizipena

Gazteen % 1,0k baieztatzen du sarritan sentitu izan duela etengabe mezuak bidaltzen zizkion, iruzkin desatseginak bidaltzen zizkion edo sare sozialen bitartez iraintzen zuen norbaiten jazarpena. % 16,9k dio ez askotan baina noizbait sentitu izan duela halako jazarpenik. Horrenbestez, eta maiztasuna gorabehera, gazteen % 17,9k bizi izan du inoiz jazarpen egoeraren bat sare sozialetan.


Emakume gehiagok salatzen dute jazarpena gizonezkoek baino: gutxienez behin jazarpena sentitu duela dio emakumeen arteko % 25,2k (hots, lautik batek), baina soilik mutilen arteko % 10,8k. Adinaren arabera azterketak islatzen du, 25 eta 29 artekoekin alderatuta, 25 urtetik beherakoek gehiagotan onartzen dutela sare sozialetan jazarpen-egoerarik bizi izana.

4.5.taula. Sare sozialetan jazarpena sentitu duten gazteak, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)

Inoiz sentitu duzu pertsona batek edo batzuek erasotzen edo jazartzen zintuztela, eten gabe mezuak bidaltzen zizkizutelako, iruzkin desatseginak bidaltzen zizkizutelako, iraintzen zintuztelako...						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Askotan	1,0	1,4	0,6	1,1	1,1	0,8
Noizbait	16,9	23,8	10,2	17,6	20,9	12,5
Inoiz ez	82,1	74,7	89,2	81,2	78,0	86,7
Guztira	100	100	100	100	100	100
(n)	1512	756	756	504	504	504

Sexua eta adina konbinatuz gero, adin talde guztietan emakumeek gizonetakoek baino askoz gehiago diote jazarpen-egoerarik bizi izan dutela sare sozialetan.

Eta emakumeen artean ere jazarpen-egoera gehiago bizi izan dituzte (edo bizi izatea aitortzen dute) 25 urtetik beherakoek adin hori gainditzen dutenak baino.

4.3.grafikoa. Sare sozialetan gutxienez behin jazarpena sentitu duten gazteak, sexua eta adina konbinatuta (%)

WhatsAppeko taldeetatik baztertuak izan diren, sare sozialetan beren nortasuna ordeztu dituzten, bere bideo edo argazki konprometitu, iraingarri edo lotsagarriren bat sare sozialetan baimenik gabe zabalduta ikusi duten edo antzeko egoeraren bat bizi izan dutenak halakorik pairatu ez dutenak baino gehiago sentitu izan dute jazarpenik sare sozialetan.

4.6.taula. Sare sozialetan jazarpena sentitu duten gazteak, aintzat hartuta WhatsAppeko taldeetatik baztertua izatearen, sare sozialetan beren nortasuna ordeztearen, edo bere argazki edo bideo konprometitu, iraingarri edo lotsagarriren bat sare sozialetan baimenik gabe zabaldua ikustearen aldagaiak (%)

Inoiz sentitu duzu pertsona batek edo batzuek erasotzen edo jazarpena zintuztela, eten gabe mezuak bidaltzen zizkizutelako, iruzkin desatseginak bidaltzen zizkizutelako, iraintzen zintuztelako...							
(%)	Guztira	WhatsAppeko taldeetatik baztertu dituzte		Datuak faltsututa, beraien ordeztatu dira sare sozialetan		Beraien baimenik gabe irudi konprometituak edo umiliagarriak zabaldu dituzte	
		Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez
Askotan	1,0	1,4	0,8	3,9	0,7	4,0	0,8
Noizbait	16,9	22,0	14,3	33,4	15,0	29,2	15,8
Inoiz ez	82,1	76,5	84,9	62,7	84,2	66,8	83,4
Guztira	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1512	516	993	135	1371	109	1401

Interneten edo sare sozialetan eztabaida edo salaketa sozialen bat abiarazi edo sustatu dutenek ere ziberaktibismoan aritu ez direnek baino gehiago diote jazarpen-egoerarik bizi izan dutela gutxienez behin (% 25,4 eta % 14,9, hurrenez hurren).

4.5. Sare sozialetatik irtetea edo/eta sare sozialetan blokeatzea

Euskadiko gazteen % 4,4k dio askotan irten izan dela sare sozialen batetik edo blokeatu izan duela norbait, haren mezu desatseginik ez jasotzeko. Gainera, % 48,0k dio noizbait egin duela halakorik; horrenbestez, guztira gazteen erdiak baino zertxobait gehiagok (% 52,4) hartu izan du neurriren bat mezu desatseginik ez jasotzeko edo jazarpena ekiditeko.

Emakumeek gizonek baino gehiago jo izan dute neurri horietara. Eta 15-24 urte-tartekoek 25-29 tartekoek baino gehiago.


4.7.taula. Sare sozialen batetik irten diren edo norbait blokeatu duten gazteak, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)

Inoiz irten zara sare sozial batetik edo pertsona bat bloketatu duzu bere mezu desatseginak gehiagotan ez jasotzeko?						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Askotan	4,4	6,4	2,4	4,3	4,7	4,1
Noizbait	48,0	53,8	42,5	50,4	51,1	43,1
Inoiz ez	47,4	39,7	54,8	45,1	44,2	52,5
Ez du erantzun	0,2	0,0	0,3	0,3	0,0	0,3
Guztira	100	100	100	100	100	100
(n)	1512	756	756	504	504	504

15-19 eta 20-24 adin taldeetan, emakumezkoek gizonaizkoen baino askoz gehiago diote sare sozialen batetik irten direla edo norbait blokeatu dutela, mezu desatseginak ekiditeko, baina 25-29 adin taldean ez da alde esanguratsurik gizon eta emakumeen artean.

Sexuaren eta adinaren arteko konbinazioak erakusten digu gizonaizkoen artean adinaren arabera alderik ez dagoen bitartean, emakumeengan badagoela, 25 urtetik gorako eta behekoen artean. 25 urtetik beherako hiru emakumetik bi irten izan da noizbait sare sozialen batetik edo blokeatu izan du norbait, haren mezurik ez jasotzeko.

4.4.grafikoa. Sare sozialen batetik irten diren edo norbait blokeatu duten gazteak, sexua eta adina konbinatuta (%)



Etengabe mezuak, iruzkin desatseginak edo irainak bidaltzen zizkion norbaiten jazarpena gutxienez behin sentitu izan dutela dioten hamar pertsonatik bederatzik irten izan dira sare sozialen batetik edo blokeatu izan dute norbait, haren mezurik ez jasotzeko (% 91,3).

Gainera, WhatsAppeko taldeetatik baztertuak izan diren, sare sozialetan beren nortasuna ordeztua ikusi duten, edo beren argazki edo bideo konprometitu, iraingarri edo lotsagarriren bat sare sozialetan baimenik gabe zabalduta ikusi duten gazteek (hain zuzen ere, eta gorago esan den bezala, sareetan jazarpen gehien sentitu dutenak dira horiek), halakorik pairatu ez dutenek baino gehiago adierazi dute sare sozialetatik irten direla edo norbait blokeatu dutela haren mezurik ez jasotzeko.

4.8. taula. Sare sozialen batetik irten diren edo norbait blokeatu duten gazteak, aldagai hauen arabera: sare sozialetan jazarpena sentitzea, WhatsAppeko taldeetatik baztertua izatea, sare sozialetan beren nortasuna ordeztzea, edo bere argazki edo bideo konprometitu, iraingarri edo lotsagarriren bat sare sozialetan baimenik gabe zabalduta ikustea (%)

Inoiz irten zara sare sozial batetik edo pertsona bat bloketatu duzu bere mezu desatseginak gehiagotan ez jasotzeko?									
(%)	Guztira	Sare sozialetan jazarpena sentitu dute		WhatsAppeko taldeetatik baztertu dituzte		Datuak faltsututa, beraien ordeztu dira sare sozialetan		Beraien baimenik gabe irudi konprometituak edo umiliagarriak zabaltu dituzte	
		Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez
Askotan	4,4	16,1	1,8	5,8	3,7	14,0	3,5	14,2	3,6
Noizbait	48,0	75,2	42,1	53,9	45,1	59,5	46,8	56,8	47,4
Inoiz ez	47,4	8,7	55,9	40,1	51,1	26,4	49,6	29,0	48,8
Ez du erantzun	0,2	0,0	0,2	0,3	0,1	0,0	0,2	0,0	0,2
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1512	282	1230	516	993	135	1371	109	1401

Edonola ere, sare sozialen batetik irtetea edo norbait blokeatzea haren mezurik ez jasotzeko, ez da soilik sareetan jazarpenik sentitu dutenen jokabidea: inoiz jazarpenik sentitu ez dutenen % 43,9k ere jokatu izan du horrela.

4.6. Sare sozialetan irain edo/eta umiliazioen lekuko izatea

Norberak irain edo umiliaziorik jasan izana gorabehera, sare sozialetan norbaiten aurkako irain edo umiliazioen lekuko izan diren galdetu zaie gazteei. Gazteen % 19,5ek dio askotan ikusi duela halakorik, eta % 53,8k noizbait; horrenbestez, ondoriozta dezakegu gazteen arteko ia hiru laurdena (% 73,3) izan dela sare sozialetan irain edo/eta umiliazioen lekuko.


Emakume gazteek gizonen baino neurri handiagoan izan dira sare sozialetan irain edo umiliazioen lekuko. Gainera, 25 urtetik beherakoak 25-29 adin-tartekoak baino neurri handiagoan izan dira halakoen lekuko.

4.9. taula. Sare sozialetan norbaiten aurkako irain edo umiliazioen lekuko izan diren gazteak, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)

Eta inoiz ikusi duzu beste pertsona bat iraintzen edo umiliatzen zutela sare sozialen batean?						
(%)	Guztira	Sexua		Adin-taldeak		
		Emakumeak	Gizonak	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Askotan	19,5	21,9	17,1	17,6	21,1	19,7
Noizbait	53,8	53,6	54,0	59,5	54,0	48,3
Inoiz ez	26,5	24,1	28,8	22,4	24,7	31,9
Ez du erantzun	0,2	0,4	0,1	0,5	0,2	0,0
Guztira	100	100	100	100	100	100
(n)	1512	756	756	504	504	504

Adin talde guztietan, emakumeek gizonezkoek baino gehiago diote sare sozialetan norbaiten aurkako irain edo umiliazioen lekuko izan direla; alabaina, eta nahiz eta gizon eta emakumeen arteko aldea ia hamar puntukoa den 15-19 adin-tartean, 20-24 eta 25-29 tarteetan aldeak ez dira esanguratsuak.

4.5.grafikoa. Sare sozialetan norbaiten aurkako irain edo umiliazioen lekuko izan diren gazteak, sexua eta adina konbinatuta (%)



Inoiz sare sozialetan jazarpena sentitu izan duten pertsonen (etengabe mezuak, edo iruzkin desatseginak, irainak, etab. jasotzeagatik) askoz gehiago adierazten dute sare sozialetan irain edo umiliazioen lekuko izan direla (% 37,8k askotan eta % 50,7k noizbait), eta hori logikoa da, kontuan hartuta besteren esperientziari euren berena ere gehitu diezaieketela.

Sare sozialetan nortasun-ordezpena pairatu dutenek eta beren argazki edo bideo konprometitu, iraingarri edo lotsagarriren bat sare sozialetan baimenik gabe zabalduta ikusi dutenek ere halakorik bizi ez dutenek baino askoz gehiago adierazten dute irain eta/edo umiliazioen lekuko izan direla.

4.10.taula. Sare sozialetan irain eta/edo umiliazioen lekuko izan diren gazteak, aldagai hauen arabera: sare sozialetan jazarpena sentitzea, sare sozialetan beren nortasuna ordeztea, edo bere argazki edo bideo konprometitu, iraingarri edo lotsagarriren bat sare sozialetan baimenik gabe zabalduta ikustea (%)

Eta inoiz ikusi duzu beste pertsona bat iraintzen edo umiliatzen zutela sare sozialen batean?							
(%)	Guztira	Sare sozialetan jazarpena sentitu dute		Datuak faltsututa, beraien ordeztu dira sare sozialetan		Beraien baimenik gabe irudi konprometituak edo umiliagarriak zabaldu dituzte	
		Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez
Askotan	19,5	37,8	15,5	44,8	17,0	32,5	18,5
Noizbait	53,8	50,7	54,5	43,1	55,0	51,5	54,1
Inoiz ez	26,5	11,5	29,8	12,1	27,8	15,4	27,2
Ez du erantzun	0,2	0,0	0,3	0,0	0,2	0,5	0,2
Guztira	100	100	100	100	100	100	100
(n)	1512	282	1230	135	1371	109	1401

5.

ONDORIOAK

Sare sozialak gazteen eguneroko biziaren zati dira; gazte askorentzat sare sozialetara konektatzea da ohetik altxatzean egiten duten lehen gauza, eta sarean aritzea oheratzean egiten duten azkena. Izan ere, gazteen arteko erdiak (% 49,0k) onartzen du askotan ohetik jaikitzerakoan egiten duen lehena WhatsApp edo sare sozialak irekitzea dela. Eta bost gaztetik batek (% 20,1ek) aitortzen du gauean oso berandu arte geratzen dela WhatsApppeko mezuak bidaltzen edo sare sozialetara konektatuta. Bestalde, hamar gaztetik batek (% 11,6k) dio beren lagun edo senideek askotan egin dietela oharren bat sare sozialetara konektatuta ematen duten denboraren kontura.

WhatsApp alde batera uzten badugu —Euskadiko gazte ia-ia guztiak egunero konektatzen baitira hartara—, Instagram da Euskadiko gazteen sare sozialik gogokoena. Ez da soilik egunero erabili, Youtubekin batera (% 74,1 Instagramera konektatzen da egunero, eta % 73,7 Youtubera); horrez gain, sare sozial bakar batera konektatu ahal izanez gero, Instagram da gazte gehienek (% 52,1ek) hautatuko luketena.

Egunero sare sozial bakoitzera konektatzeko gizon eta emakumeen artean dauden aldeei erreparatzen badiugu, ikusten da berehalako mezularitzako aplikazioen atzetik (WhatsApp, esaterako), emakume gazte gehien Instagramera konektatzen dela, eta gizon gazte gehienak Youtubera.

Adinean gora egin ahala, murriztu egiten da egunero Instagram, Youtube edo Snapchat erabiltzen duten gazteen kopurua, eta areagotu, aldiz, Facebook edo enplegua bilatzeko sare sozialak (Linkedin, Infojobs, Indeed eta beste) erabiltzen dituztenena. Edonola ere, eta joera hori gorabehera, 25 eta 29 urte bitarteko gazteen artean Instagram eta Youtube dira egunero gehien erabiltzen diren sare sozialak.

Euskadiko gazteek batez ere gaztelania erabiltzen dute sare sozialetan. Gazteen % 15ek erabiltzen du batez ere euskara. Gipuzkoan sare sozialetan batez ere euskara darabiltzenen ehunekoa bikoiztu egiten da, eta % 30era iristen da.

Internet eta sare sozialetan jarduera ohikoenak (inkestatuei planteatu zitzaizen zerrenda batetik hautatuta) musika entzutea eta bideo edo tutorialak ikustea dira. Gazte gehienak egunero aritzen dira jarduera bietan: % 86,3k egunero entzuten du musika, eta % 56,4k egunero ikusten du bideoen bat.

Badira gazte gehienek egiten dituzten jarduera mota batzuk, baina erdia baino gutxiago dira horietan egunero aritzen direnak. Horien artean daude serieak edo pelikulak ikustea, prentsa irakurtzea, edozein motatako edukiak (argazkiak, bideoak, testuak...) argitaratzea, produktu edo zerbitzuak erosi edo saltzea, eta Skype, FaceTime edo antzeko plataformak erabiliz bideodeiak egitea. Adinean gora egin ahala, areagotu egiten da Interneten pelikulak edo serieak ikusten, prentsa digitala irakurtzen eta Internet bidez saltzen edo erosten dutenak, baina, alderantziz, murriztu egiten da Interneten edukiak argitaratzen edo bideodeiak egiten dituztenen ehunekoak.

Eta azkenik, bada gazte gehienek inoiz praktikatzen ez duten jarduera-multzo bat. Horien artean daude beste pertsona batzuekin konektatuta bideokontsola bidezko jokoetan aritzea, albisteei buruzko iritzia eman edo iruzkinak egitea, podcastak entzutea, lehiaketetan edo zozketetan parte hartzea, pornografia ikustea, bikotekidearekin edo lagunekin izaera sexualeko eduki pertsonalak partekatzea, kirol-apustuak egitea, eta dirua irabazteko pokerrean edo online-jokoetan aritzea. Jarduera horietan guztietan gizonetzkoak emakumeak baino gehiago aritzen dira, eta sexuen arteko alde nabarmenenak jarduera hauetan hautematen dira: pertsona batzuekin konektatuta bideokontsola bidezko jokoetan aritzea (gizonetzkoen % 42,5 gutxienez astean behin aritzen da, baina soilik emakumeen % 4,6); pornografia ikustea (gizonetzkoen % 39,1 gutxienez astean behin aritzen da, baina soilik emakumeen % 2,7); eta kirol-apustuak egitea (gizonetzkoen % 7,8 eta emakumeen % 1,1 gutxienez astean behin aritzen dira).

Adinaren arabera alde nabarmenenean zerikusia dute musika entzutearekin eta beste pertsona batzuekin konektatuta bideokontsola bidezko jokoetan aritzearekin (jarduera horiek askoz maiztasun handiagoarekin praktikatzen dituzte 20 urtetik beherakoek), baita prentsa digitala irakurtzearekin ere (jarduera askoz ohikoagoa da 20 eta 29 urte bitartekoaren artean).

Hamar gaztetik batek (% 9,4k) dio izan duela edo gaur egun baduela blog pertsonalen bat, baina askoz ere gehiago dira (% 52,4) youtuber, gamer edo influencerren bati jarraitzen diotenak, batez ere 15 eta 19 urte bitartekoaren artean, non hirutik bi jarraitzaile diren.

Bestalde, Euskadiko gazteen laurdenak baino gehixeagok (% 28,8k) dio azken urtean abiarazi edo sustatu duela Interneten edo sare sozialetan eztabaida edo salaketa sozialen bat, testu bat idatziaz edo irudi edo bideoen bat zabalduaz; ziberaktibismo deritzo jarduera horri. Ziberaktibismo hori zabalduxeago dago emakumeen artean, gizonetakoengan baino, eta 20 eta 29 urte bitartekoaren artean, 20 urtetik beherakoaren artean baino, baina azken urtean ziberaktibismoan gehien aritu direnak blog pertsonalen bat izan duten edo egun dutenak dira, horien arteko ia erdiak (% 47,7k) aitortzen baitu hori.

Gazteen arteko gehien-gehienek (% 87,6k) diote hartzen dutela neurririk sare sozialetan pribatutasuna bermatzeko, halako moduan non soilik pertsona jakin batzuek ikusiko dituzten beren edukiak. Alabaina, % 14,1ek sare sozialen batera sartzeko pasahitza eman izan dio beste pertsona batzuei, % 26,6k pertsonalki ezagutzen ez dituen pertsonen adiskidetasun-eskaerak onartzen ditu, eta % 23,0k aitortzen du ez diela inoiz baimenik eskatzen bere argazki eta bideoetan agertzen diren beste pertsonen (pertsona horien pribatutasuna bermatzeko neurri gisa), Internetera igo aurretik.

Bestalde, konparatzen badugu gurasoengandik sare sozialen erabilera zuzenari buruzko aholkuak jaso dituzten eta horretan gurasoei lagundu dieten gazteen ehunekoak, ikusiko dugu gehiago direla gurasoei azalpenak eman dizkietenak (% 76,6k, askotan eta noizbait egin izan dutela dioten ehunekoak batuta), gurasoengandik halakorik jaso dutela diotenak baino (% 43,2). 15 eta 19 urte bitartekoak dira beren gurasoengandik sare sozialak zuzen erabiltzeko irizpideak jaso dituztela gehien diotenak (ia hirutik bik), baina, aldi berean, kolektibo horretan ere gehiago dira gurasoei azalpenak eman dizkietenak haiengandik jaso dituztenak baino.

Egoera umiliagarriak edo jazarpenekoak ez zaizkio arrotz sare sozialen erabilerari, batez ere ez bada kontuen pribatutasuna bermatzeko neurririk hartu. Gazteen % 8,7k dio gutxienez behin ordeztu izan dutela bere nortasuna sare sozialetan, eta % 7,2k jakinarazten du gutxienez behin norbaitek zabaldu izan duela sare sozialetan, bere baimenik gabe, bera agertzen den argazki edo bideo konprometitu, iraingarri edo lotsagarriren bat. Inoiz pasahitza beste norbaiti eman dioten gazteek bizi izan dute gehien nortasun-ordezpeneko edo beren irudi (argazki edo bideo) konprometitu, iraingarri edo lotsagarriren bat sare sozialetan baimenik gabe zabaldua ikusi beharreko egoerak.

Gainera, gazteen % 17,9k dio noizbait sentitu izan duela norbaiten jazarpena etengabe mezuak bidaltzen zizkiolako, iruzkin desatseginak bidaltzen zizkiolako edo sare sozialen bitartez iraintzen zuelako. Askoz gehiago dira sare sozialetan jazarpen-egoeraren bat bizi izan dutela dioten emakumeak gizonetakoak baino (% 25,2 eta % 10,8, hurrenez hurren).

Jazarpenik sentitu ez arren, Euskadiko gazteen erdiak baino zertxobait gehiagok (% 52,4k) dio gutxienez behin irten izan dela sare sozialen batetik edo blokeatu izan duela norbait, haren mezu desatseginik ez jasotzeko. Emakumeek (zeinek jazarpena jasan dutenen ehuneko handiagoak dituzten gizonezkoek baino) gizonezkoek baino gehiagotan diote sare sozialetatik irten direla edo norbait blokeatu izan dutela. Halaber, nahiz eta ez lehen eskutik bizi izan, gazteen arteko ia hiru laurdenek diote besteren bati eginiko irain eta/edo umiliazioen lekuko izan direla sare sozialetan (% 73,3).

Beraz, ikusten dugu sare sozialek aukera asko eskaintzen dituzten arren, arriskuak ere badituztela. Gurasoak gehiago inplikatu behar dira aholku lanetan gazteei sare sozialen erabilera zuzenari buruz eta pribatutasun- eta segurtasun-neurriak hartzeari buruz ohartarazteko eta, hartara, neurri batean bederen arrisku horiek murrizteko. Ikerlan honetan elkarriketatutako 15 eta 29 urte bitarteko gazteen guraso askok eremu arrotz eta ezezaguntzat bizi izan dute sare sozialen mundua, eta ez dute jakin horietara behar beste egokitzen, ez behintzat beren seme-alabei irizpideak emateko adina. Hori aldatzen ari da, sumatzen baita egun 15 eta 19 urte bitarteko kolektiboak askoz irizpide gehiago jaso izan duela gurasoengandik adin handixeagoko gazteek baino. Eta, seguru asko, gaur egun gazte direnek hobeto heziko dituzte beren seme-alabak sare sozialak zuzen erabili ditzaten.

Sare sozialen mundua berria da eta etengabeko bilakaeran dago. Sare berriak sortuko dira, bidea emango dutenak beste jarduera mota batzuetan aritzeko, edo beste nolabaiteko edukiak sortzeko edo horiek eskuratzeko... Horietako batzuk gazteen eremu ia-ia eskusibo izango dira, gazteriak beti bilatu izan baitu bere espazioa, eta harreman- eta komunikazio-bitarteko paregabekoa aurkitu du sare sozialetan.

Bibliografia

- CASTILLEJOS LÓPEZ, Berenice et al.** (2016): "La seguridad en las competencias digitales de los millennials", *Apertura. Revista de Innovación educativa aldizkarian*, 8. liburukia, 2. zenbakia, 2016ko urria, 54-69. or. [linean] Universidad de Guadalajara. Helbide honetan eskuragarri: <http://www.udgvirtual.udg.mx/apertura/index.php/apertura/article/view/914> [Kontsulta: 2019/04/15]
- CUERDA ARNAU, María Luisa** (2016): *Menores y redes sociales*. Valencia: Tirant lo Blanch. ISBN 978-84-9119-780-5.
- GARCÍA AGUADO, Pedro eta Francisco CATAÑO MENA** (2017): *A salvo en la red*. Barcelona: Grijalbo. ISBN 978-84-253-5490-8.
- GARCÍA GALERA, María del Carmen eta Cristóbal FERNÁNDEZ MUÑOZ** (2016): *Si lo vives, lo compartes: cómo se comunican los jóvenes en un mundo digital* [linean]. Barcelona: Ariel. ISBN 978-84-08-15993-3. Helbide honetan eskuragarri: https://www.fundaciontelefonica.com/arte_cultura/publicaciones-listado/pagina-item-publicaciones/itempubli/499/ [Kontsulta: 2019/04/25]
- GARDNER, Howard eta Katie** (2014): *La generación app: cómo los jóvenes gestionan su identidad, su privacidad y su imaginación en el mundo digital*. Barcelona: Paidós. ISBN 978-84-493-2985-2.
- GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA** (2018): *Urriko Gaztedoc* [linean] Helbide honetan eskuragarri: http://www.gazteaukera.euskadi.eus/r58-7657/eu/contenidos/noticia/behatokiko_buletina_10_18/eu_buletina/behatokiko_boletina.html [Kontsulta: 2019/04/15]
- GIANT, Nikki** (2016): *Ciberseguridad para la i-generación: usos y riesgos de las redes sociales y sus aplicaciones*. Madrid: Narcea. ISBN 978-84-277-2143-2.
- GUADARRAMA RICO, Luis Alfonso** (2016): *Cuestiones de ética de la comunicación*, Madrid: Dykinson. 99-112. or. ISBN 978-84-9085-786-1.
- PRENSKY, Marc** (2010): "Nativos e Inmigrantes digitales", *Cuadernos SEK 2.0 aldizkarian* [linean] Institución educativa SEK. Lege gordailua: M-24433-2010. Helbide honetan eskuragarri: [https://www.marcprensky.com/writing/Prensky-NATIVOS%20E%20INMIGRANTES%20DIGITALES%20\(SEK\).pdf](https://www.marcprensky.com/writing/Prensky-NATIVOS%20E%20INMIGRANTES%20DIGITALES%20(SEK).pdf) [Kontsulta: 2019/04/15]
- RONSON, Jon** (2015): *Humillación en las redes*. Barcelona: Ediciones B. ISBN 978-84-666-5797-6.
- TABOADA, Lucía** (2015): *#Hiperconectados*. Barcelona: Zenith. ISBN 978-84-08-14707-7.

Grafikoen eta taulen aurkibidea

Grafikoen aurkibidea

1.1. grafikoa. Gazteriaren banaketa, kontu edo profila duten sare sozialen kopuruaren arabera (%).....	13
1.2. grafikoa. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen sare sozial gogokoena (%).....	18
13. grafikoa. Euskararen erabilera nagusia sare sozialetan, lurralde historikoaren arabera (%).....	20
1.4. grafikoa. Ordainpeko sarbidea Interneteko edukietara, sexuaren, adin taldearen eta emantzipazio-egoeraren arabera (%)	22
2.1. grafikoa. Ziberaktibismoa, sexuaren eta adin taldearen arabera (%).....	38
3.1. grafikoa. Pribatutasuna bermatzeko neurriak hartzea, sexuaren eta adin taldearen arabera (%).....	42
3.2. grafikoa. Pribatutasuna bermatzeko neurriak hartzea, sexua eta adina konbinatuta (%).....	42
3.3. grafikoa. Sare sozialetan sartzeko pasahitza inori eman izan dioten gazteak (%).....	43
3.4. grafikoa. Sare sozialetan sartzeko pasahitza inori eman izan dioten gazteak, sexua eta adina konbinatuta (%).....	44
3.5. grafikoa. Argitaratzen diren argazki eta bideoetan agertzen diren pertsonen argitaratzeko baimena eskatzea (%)	45
3.6. grafikoa. Adiskide izateko eskarien onarpena (%).....	46
3.7. grafikoa. Pertsonalki ezagutzen ez diren pertsonen adiskide izateko eskarien onarpena, sexua eta adina konbinatuta (%).....	47
3.8. grafikoa. Gurasoengandik sare sozialak zuzen erabiltzeko azalpen edo irizpiderik jaso duten gazteak, sexua eta adina konbinatuta (%)	49
3.9. grafikoa. Gazteen banaketa, sare sozialak zuzen erabiltzeko irizpiderik gurasoengandik jaso eta/edo gurasoei eman aldagaiei jarraikiz, sexuaren eta adin taldearen arabera (%).....	51

3.10. grafikoa. Gazteen banaketa, sare sozialak zuzen erabiltzeko irizpiderik gurasoengandik jaso eta/edo gurasoei eman aldagaiei jarraikiz, sexua eta adina konbinatuta (%)	52
4.1. grafikoa. WhatsApp taldeetatik baztertutako gazteak, sexua eta adina konbinatuta (%).....	54
4.2. grafikoa. Sare sozialetan gutxienez behin nortasun-ordezpena pairatu duten gazteak, sexuaren, adin taldearen eta beste norbaiti pasahitza ematearen aldagaiak konbinatuta (%)	55
4.3. grafikoa. Sare sozialetan gutxienez behin jazarpena sentitu duten gazteak, sexua eta adina konbinatuta (%).....	58
4.4. grafikoa. Sare sozialen batetik irten diren edo norbait blokeatu duten gazteak, sexua eta adina konbinatuta (%).....	60
4.5. grafikoa. Sare sozialetan norbaiten aurkako irain edo umiliazioen lekuko izan diren gazteak, sexua eta adina konbinatuta (%).....	62

Taulen aurkibidea

1.1. taula. Gazteriaren banaketa, sare sozial jakin batzuk erabiltzen dituzten maiztasunaren arabera (%).....	15
1.2. taula. Egunero edo ia egunero proposatutako sare sozialetako bakoitza erabiltzen duten gazteen ehunekoa, sexuaren eta adin taldearen arabera (%).....	16
1.3. taula. Egunero edo ia egunero proposatutako sare sozialetako bakoitza erabiltzen duten gazteen ehunekoa, sexua eta adina konbinatuta (%).....	17
1.4. taula. Sare sozial gogokoena, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)	19
1.5. taula. Sare sozial gogokoena, sexua eta adina konbinatuta (%)	19
1.6. taula. Hizkuntza erabiliena sare sozialetan, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)	20
1.7. taula. Sare sozialen erabilera, gurasoenarekin konparatuta, sexuaren eta adinaren arabera (%).....	21
1.8. taula. Sare sozialen erabilerari buruzko zenbait egoera izaten diren maiztasuna (%)	23
1.9. taula. Sare sozialen erabilerari buruzko zenbait egoera izaten diren maiztasuna, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)	25
2.1. taula. Interneten edo sare sozialetan zenbait jardueratan aritzeko maiztasuna (%)	28
2.2. taula. Interneten edo sare sozialetan zenbait jardueratan aritzeko maiztasuna, sexuaren eta adin taldearen arabera (I) (%)	30
2.3. taula. Interneten edo sare sozialetan zenbait jardueratan aritzeko maiztasuna, sexuaren eta adin taldearen arabera (II) (%)	31

2.4. taula.	Dirua irabazteko asmorik gabe beste pertsona batzuekin konektatuta bideokontsola bidezko jokoetan aritzeko maiztasuna, sexua eta adina konbinatuta (%)	32
2.5. taula.	Gazteek Interneten edo sare sozialetan pornografia ikustearen maiztasuna, sexua eta adina konbinatuta (%)	33
2.6. taula.	Internet edo sare sozialen bitartez bikotekidearekin edo lagunekin izaera sexualeko eduki pertsonalak partekatzearen maiztasuna, sexua eta adina konbinatuta (%)	34
2.7. taula.	Gazteek Internet edo sare sozialen bidez kirol-apustuak egitearen maiztasuna, sexua eta adina konbinatuta (%)	34
2.8. taula.	Youtuber, gamer edota influencerren jarraipena, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)	35
2.9. taula.	Blog pertsonalak izatea, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)	36
2.10. taula.	Argitaratutako edukien balorazioaren kontsulta, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)	37
2.11. taula.	Argitaratutako edukien balorazioaren kontsulta, sexua eta adina konbinatuta (%)	37
2.12. taula.	Ziberaktibismoa, sare sozialetan edukiak argitaratzeko maiztasunaren eta blog pertsonala inoiz izatearen arabera (%)	39
2.13. taula.	Twitter eta Facebook erabiltzeko maiztasuna, ziberaktibismoaren arabera (%)	39
3.1. taula.	Argitaratzen diren argazki eta bideoetan agertzen diren pertsonen argitaratzeko baimena eskatzea, sexuaren, adin taldearen, blog pertsonala inoiz izatearen eta pribatutasun-neurriak hartzeko joeraren arabera (%)	45
3.2. taula.	Adiskide izateko eskarien onarpena, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)	47
3.3. taula.	Gurasoengandik sare sozialak zuzen erabiltzeko azalpen edo irizpiderik jaso duten gazteak, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)	48
3.4. taula.	Gurasoei sare sozialak zuzen erabiltzeko azalpen edo irizpideak eman dizkieten gazteak, sexuaren eta adin taldearen arabera (%)	50
